



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

GIZARTE  
ETA KOMUNIKAZIO ZIENTZIEN  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE CIENCIAS SOCIALES  
Y DE LA COMUNICACIÓN

GRADU AMAIERAKO LANA

Kazetaritza Gradua

Eguneroko prentsaren bilakaera diktadura  
frankistan: 1938ko legetik 1966ko prentsa  
legera

Egilea: Iñaut Gonzalez de Matauko Rada

Zuzendaria: Jose Maria Beascochea

Ikasturtea: 2022/2023







# 0. Aurkibidea

<b>0. Aurkibidea</b>	<b>4</b>
<b>1. Sarrera</b>	<b>5</b>
<b>2. Hipotesiak eta helburuak</b>	<b>6</b>
<b>3. Metodologia:</b>	<b>7</b>
<b>4. Testuingurua</b>	<b>11</b>
4.1. Diktadura frankista: Gerra Zibiletik Francoren heriotzera	11
4.1.1. Erregimen autoritario eta pertsonalista baten hasiera	11
4.1.2. Frankismo berantiarra eta irekiera garaia	15
4.2. Franco eta Hitlerren arteko elkarrizketa	19
4.3. Burgosko Prozesua	21
<b>5. Análisis</b>	<b>24</b>
5.1 Diktadura frankistako prentsa legeak	24
5.2 El Correo Español-El Pueblo Vasco eta La Voz de España	28
5.4 Egunkarien idazkiak	31
<b>6. Ondorioak</b>	<b>47</b>
<b>7. Bibliografía</b>	<b>49</b>

# 1.Sarrera

Francisco Francoren erregimen berria 1936ko gerra amaitu aurretik eta Espainiako eremu guztiaren kontrola bereganatu aurretik hasi zen funtsezko hainbat lege onartzen, eta 1938ko prentsa legea horietako bat izan zen. Izan ere, propaganda eta prentsaren kontrola XX. mendeko erregimen gehienek ezaugarrietako bat izan zen, masen manipulazio eta kontrolerako (Alvarez Llaneza, 2019). Horretarako, prentsa lege horri esker, prentsa errepublikarrarekin amaitu zuen Francok, eta egunkari guztiak Estatu berriaren menpe eta bere zerbitzura egotea lortu zuen. Bestalde, hainbat mekanismorekin are gehiago lortu zuen publikatzen zen guztia kontrolatzea, aurretiazko zentsura esaterako.

Diktaduraren lehen urteetan kontrola oso zorrotza zen, eta ia iritzi bakarra zegoen edozerrekiko, baina urteak pasatzen joan ziren heinean, erregimenak hainbat neurri hartu behar izan zituen pixka bat irekitzeko, eta neurri horietako bat izan zen 1966ko Prentsa eta Inprenta legea. Aurreko legeak zituen hainbat neurri murriztailerekin amaitu zen lege berriari esker, baina nahiko urrats leunak izan ziren. Prentsak ere bere bilakaera izan zuen, eta diktaduraren lehen urteetan zegoen panorama informatiboa aldatu egin zen; titulartasun pribatua zuten egunkariak gutxinaka irekitzen hasi ziren, eta mendebaldeko demokrazietako egunkarietara hurbiltzen hasi ziren. Mugimenduko Prentsa Katearen egunkariak, baina, ez ziren horrenbeste aldatu, lotura zuzena izaten jarraitzen baitzuten erregimenarekin, eta diktadurako lehen urteetan zegoen berdintasuna heterogenizatzen hasi zen. Hala, kasu askotan erregimenarekin lotura zuzena zuten hedabideak desagertzen joan ziren trantsizioan eta demokrazian, eta titulartasun pribatua zuten beste askok garai berrietara moldatzen jakin zuten eta gaur egunera arte bizirik jarraitu dute.

## 2. Hipotesiak eta helburuak

Prentsak diktadura frankistaren garaian jokatu zuen papera asko ikertu den zerbait da, eta asko hitz egin izan da horri buruz. Hauek dira lana jorratu aurretik egileak egiten dituen hipotesiak:

- Diktadura frankistak iraun zituen 36 urteetan adierazpen eta informazio askatasuna urria zen, eta egunkariak erregimenak eta haren gertuko jendeak kontrolatzen zituen.
- Erregimenaren ideiekin eta beharrekin guztiz lotuta zegoen informazioa zabaltzen zuten garaiko hedabideek.
- Diktadura garaian prentsa erregulatu zuten bi legeak (1938koa eta 1966koa) antidemokratikoak eta oinarrizko eskubideen aurkakoak ziren. Hala ere, bilakaera ikusten da bien artean.
- Bigarren prentsa legea garaiko egoerara moldatzeko egin zen: aurrerapen batzuk zituen, eta Mendebaldeko demokrazien estandarretara pixka bat gerturatu zen, asko ez bada ere (zentsura kentzea, salbuespen batzuk kenduta, horren adibide da).
- Nazioarteko onespena lortzeko eta nazioarteko komunitatean sartzeko gerturapen bat zen lege hori, beste batzuk bezala.
- Hala, prentsan bilakaera bat egon zen diktaduraren urteetan: hasieran, gerra garaian, muturrekoa zen, eta gobernuaren eskuan zegoen, eta azken urteetan egun ezagutzen dugun prentsara gerturatzen hasi zen.

Hipotesiak jakinda, lan honen helburuak bat baino gehiago dira. Lehenik eta behin, baieztatu nahi da diktadura garaian prentsa erregimenarekin guztiz lerrokatuta zegoela, eta bere intereserako informazioa emango duela: bai eduki aldetik eta bai forma aldetik ere. Beste helburu bat da demostratzea diktadurak iraun zituen 36 urte luzeetan bilakaera bat ere egon zela prentsan; hau da, eguneroko prentsa ez zela bera 1939an edo 1970ean. Izan ere, prentsa eta inprentaren lege berria egon zen tartean, diktaduraren azken hamar urteetan indarrean egon zena, eta aldaketa batzuk ekarri zituen prentsaren jardunean.

### 3. Metodologia:

Aurreko atalean azaldutako helburuak lortzeko, ikerketarako eta analisirako metodologia bat zehaztu behar da. Hipotesiak eta helburuak jakinda, hipotesiak frogatzeko garaiko prentsaren analisi bat egingo dugu; hau da, hemeroteca ikerketa bat. Hori burutzeko, Pablo Hernandez Ramos Madrilgo Complutense Unibertsitateko doktoarearen *Consideración teórica sobre la prensa como fuente historiográfica* artikulua erabiliko dugu (Hernandez Ramos, 2017). Bertan, Hernandezek prentsaren erabilera historiografikoaren bilakaera historiko bat plazaratzen du lehenbizi. Hernandezen arabera, XIX. mendearen erdialdekoak dira prentsaren ikerketarako lehen saiakerak, Ingalaterran. Beranduago, XX. mendearen hasieran, Alemanian hedatu zen historia aztertzerakoan prentsa idatzia erabiltzea, eta ondoren Amerikako Estatu Batuetan ere zabaldu zen metodo hori. Izan ere, garai horretan prentsa zen informazioa zabaltzeko baliabide nagusia, nahiz eta irratia jaiotzen hasi zen. Hala ere, abantaila handia zuten egunkariak gainerako euskarri informatiboekin alderatuta, behin inprimatuta gorde baitzitezkeen; irradi programekin, berriz, zailagoa zen, horregatik hartu zuen garrantzia berezia prentsa idatziaren azterketak. Hernandezek egindako laburpen historikoaren arabera, XX. mendean hainbat eskoletan eta korrante akademikotan prentsaren erabilera historiografikoa arbuia egin da, baina dio egun ohikoa dela prentsa erabiltzea komunikazioaren historiarekin zerikusia duten ikerketetan.

Beraz, XX. mendetik gaur egun arte prentsa idatzia iturri historiografiko gisa erabili da. Historia ikertzeko hainbat abantaila ditu prentsak: informazio kantitate handia eta anitza eskaintzen du, artxibo lana ondo egin bada informaziorako sarbide azkarra ahalbidetzen du, gertakari historiko batzuekiko dauden edo zeuden ikuspuntu ezberdinak behatzea uzten du, eta hein handi batean kulturaren eta gizartearen isla da. Hala ere, bere mugak eta arazoak ere baditu. Oso garrantzitsua da idazkien garaiko testuinguru historikoa ezagutzea, ondorengo aspektuak batez ere: idatzi zen herrialdearen sistema politikoa, prentsa askatasunaren nolakotasuna, egunkarien jabeek agintariekin eta gizartearen esfera altuekin zuten harremana... Hori dela eta, idazkiak kritikoki analizatu behar dira, eta beti buruan izan behar dira aipatu berri ditugun aspektuak. Garbi dio Hernandezek: “En manos de un investigador que no disfrute de un conocimiento apropiado sobre la tendencia ideológica, la difusión o la audiencia de un periódico dado, este se convierte en una fuente inservible. La prensa es una fuente compleja, a la que se pueden atribuir multitud de significados e intenciones, por lo que exige un tratamiento cuidadoso y contextualizado en todo momento, situando cada cabecera



en su respectivo entorno social y político, teniendo en cuenta lo que simboliza la publicación”. Hori dela eta, Hernandezek prentsa historiaren erregistro “flexible” edo “moldagarri” gisa defendatzen du. Egunkariak duten edo zuten joera ideologikoa eta lerro editoriala kontuan hartu behar dira beti, baina egunkari batek lerrokatze oso nabarmen bat izateak edo neutraltasun oso gutxi izateak ez du ikertzailea eraman behar egunkari hori iturri bezala atzera botatzea. Horren aurrean, espiritu kritikoarekin ikertzea bultzatzen du Hernandezek, eta egunkaria galdekatu edo “interrogatu” behar dela defendatzen du. Azken finean, egunkari batek ikuspuntu jakin bat eskaintzen du, egunkari horretako zuzendariak, editoreak eta kazetariak errelaitatearekiko eta uneko ordenarekiko zuten ikuspuntua.

Behin ikerketaren metodoa argituta, analizatuko dugun lagina edo idazkiak zeintzuk izango diren zehaztu behar dugu. Hau dela eta, datozen lerroetan ondorengoak determinatuko ditugu: zeintzuk diren diktadura frankistak iraun zituen 36-39 urteetako etapa historiko ezberdinak, zer gertakari aukeratuko ditugun konparaketa egiteko, zein egunkari ezberdinen hemeroteca analizatuko dugun, ikerketarako egun-tarte zehatzen aukeraketa egin, eta alderaketarako zein kode deontologiko erabiliko ditugun zehaztu.

Analisiaren aurretik ezarri ditugun hipotesiak baieztatzeko, diktadura frankistan zehar prentsa eta orokorrean informazioaren mundua erregulatu zituzten bi prentsa lege nagusiak indarrean egon ziren urteetako gertakari historiko garrantzitsuak hartuko ditugu, eta denbora tarte determinatu batean egunkari zehatz batzuek nola informatu zuten aztertuko dugu.

Hori dela eta, lehenengo pausoa prentsa lege bakoitza indarrean egon zen garaiz zehatz bakoitzeko gertaera historiko bat aukeratzea izango da. 1938ko prentsa legea 1966ra arte egon zen indarrean, haren ordezkari beste bat onartu arte, eta denbora tarte honetan Francisco Franco eta Adolf Hitler Espainiako eta Alemaniako diktadoreen arteko bilera da hartuko dugun gertakaria. Testuinguruan azalduko dugun bezala, gertakari hau oso garrantzitsua izan zen bere unean, eta Espainiak Bigarren Munduko Gerran izango zuen jarrera determinatu zuen, hein batean. Bestalde, lehen aldian zen Francok eta Hitlerrek elkar ikusten zutela, eta garaiko hedabideetan liderrenganako gurtzea nolakoa zen azaleratuko dugu.

1962an Manuel Fraga Iribarne Turismo eta Informazio Ministro izendatu zuten, frankismoaren “irekiera” garaian, frankismo berantiarra bezala ere ezaguna. Ministro berriak hasieratik zuen prentsa legea aldatzeko intentzioa, kritika asko jasotzen baitzituen estatu mailan eta nazioartean ere, zentsura dela eta, besteak beste. Hau dela eta, 1966ko martxoaren 18an, 14/1966 Prentsa eta Inprentaren Legea onartu zuten Espainiako Gorteak. Lege honen

onarpenaren osteko urteak mugituak izan ziren erregimenarentzat, barne mailan erregimen demokratiko bat ezartzeko presioak anitzak eta multisektorialak baitziren. 1966tik 1975erako denbora tartean gertakari asko aukeratu daitezke prentsaren informatzeko joerak aztertzeko eta frankismoaren hasierako prentsaren kontakizunekin alderatzeko: ETaren lehenengo hilketak, Carrero Blancoren exekuzioa, etengabeko grebak... baina lan hau burutzeko Burgoseko Prozesua hartuko dugu. Izan ere, Burgoseko Prozesuak berak gertakari eta sektore asko barnebiltzen ditu: auziperatuekiko nazioarteko elkartasuna, Mendebaldeko Alemaniako kontsularen bahiketa, erregimenaren azken exekuzioak...

Bi gertakariak aukeratuta, hemerotekaren azterketa burutuko dugun egun zehatzak determinatu behar ditugu. Izan ere, bi gertakari hauek denbora tarte zabalean dute islada, baina denbora tarte zehatz bat hartu behar dugu, analisia egun gutxi batzuetan zentratzeko. Franco eta Hitlerren arteko Hendaiako bilera egun batekoa izan zen, baina egun batean baina gehiagotan eman zen horren inguruko informazioa.

Aspektu hau argituta, Franco eta Hitlerren arteko elkarrizketaren inguruko informazioa **1940ko urriaren 17tik urriaren 25era** arteko egunkarietan bilatuko dugu; hau da, Himmler Espainiara iritsi zenetik Alemaniara itzuli zen arte. Nahiz eta bilera garrantzitsuena Franco eta Hitlerren artekoa izan, aste berean bi diktaduretako goi karguen arteko elkarrizketa bat baina gehiago egon ziren, Kanpo Harremanetako kargudunen artekoak, adibidez. Hau dela eta, Himmler Espainiara iritsi zenetik hasiko dugu ikerketa, eta 25a jarri dugu azken eguna. Izan ere, nahiz eta bilera 23an izan, ondorengo egunetan horren inguruko informazioa eman zen prentsa idatzian.

Franco eta Hitlerren arteko elkarrizketarekin alderatuta, Burgoseko Prozesua gertakari luzeagoa da denboran zehar. Gertakariaren ardatza epaiketa da, eta horrek beste eremu batzuetan eragina izan zuen: nazioarte mailan, gizarte mailan... Mendebaldeko Alemaniako kontsul baten bahiketa ere tartean dago, esaterako. Burgoseko Prozesuak erregimen frankistak zeramatzan 31 urteetan ikusi ez ziren erreakzioak eta manifestazioak sorrarazi zituen, izan erregimenaren aldekoak edo auziperatuen aldekoak. Hau dela eta, prozesuak barnebiltzen dituen gertakari ezberdinen inguruan ere garai horretan nola informatu zen aztertuko dugu. Gauzak horrela, **abenduaren 2tik abenduaren 10era** Euskal Herriko egunkari ezberdinetan nola informatu zen aztertuko dugu.

Gertakari historikoak aukeratu ostean, eta ikerketa egingo dugun denbora tartea zehaztu ostean, aztertuko ditugun hedabideen inguruan hitz egin behar dugu. Azterketa

sinplifikatzeko eta informazio iturriak hobeto kontserbatuta daudelako, egunkarietan, prentsa idatzian, zentratuko gara. Diktadura frankistan bi motako hedabideak nagusitu ziren: Mugimendurekin zuzenean lerratuta zeuden hedabide publikoak eta hedabide pribatuak. Hala ere, azpimarratzekoa da hedabide pribatu gehienek lotura hertsia zutela erregimenarekin, baina formalki ez zeuden erregimenaren esku. Hala ere, gero ikusiko dugun bezala, erregimenak bere mekanismo propioak zituen hedabide horiek bere aldeko informazioa zabaltzeko.

Hau jakinda, bi egunkariren hemerrotekak aztertuko ditugu, Mugimenduaren egituretako bat eta titulartasun pribatuko beste bat. *La Voz de España* izango da aztertuko dugun lehen hedabidea, Mugimenduaren Prentsa Kateko egunkaria. *La Voz de España*, *Unidad*-ekin batera, Gipuzkoako Mugimenduaren egunkaria zen. 1936an sortua, Gipuzkoako egunkari hegemonikoa izan zen urte luzez, eguneko 30.000 egunkari saltzera iritsiz (Diaz Noci, 2012). Javier Díaz Nociren arabera, Euskal Herrian Mugimenduak zituen hedabideen artean arrakasta handiena izan zuen egunkaria da *La Voz*. Horrez gain, *El Correo Español-El Pueblo Vasco* (hemendik aurrera *El Correo*) izango da aztertuko dugun beste egunkaria, titulartasun pribatukoa. Bizkaian eta Araban egunkari nagusia izan baitzen urte luzez, eta diktaduraren ostean indartsu jarraitu zuen, gaur egun lurralde horietan egunkari irakurrienetako bihurtuz; horregatik hautatu dugu hedabide hori. Mugimenduko *La Gaceta del Norte* egunkariarekin etengabeko lehian ibili zen Bizkaian, eta lurraldeko bi egunkari nagusiak izan ziren. Lanaren bosgarren puntuan (5.Analisia) zabalago aztertzen da egunkari horien historia eta egoera diktaduraren hasieran.

## 4. Testuingurua

### 4.1. Diktadura frankista: Gerra Zibiletik Francoren heriotzera

#### 4.1.1. Erregimen autoritario eta pertsonalista baten hasiera

1939ko maiatzaren 19an, ia hiru urte luze iraun zituen Gerra Zibilaren ostean, matxinatutako edo altxatutako bandoak garaipena ospatu zuen Madrilgo Castellana Pasealeku ezagunean. Bertan, gerran “aberriaren alde” parte hartu zuten soldadu eta pertsona guztiei eskerrak eman nahi izan zizkien Francok, eta horretarako datozen urteetan gizartearen iruditegian txertatuta geratuko zen desfile bat antolatu duen estatuburu berriak. Egun horretan, 09:00etan Emilio Castelar plazatik hasita (garai horretan “Obeliskoaren Plaza” bezala ezaguna) 120.000 gizonek baina gehiagok desfilatatu zuten Cánovas del Castillo plazara arte (Redondo Rodelas, 2006, 56.or). Garaipenaren desfile honetan ere milaka gerra ibilgailu erakutsi zituen Francok, Estatu berriaren indarraren sinbolo gisa. Estatu berri hau, hala eta guztiz ere, Gerra Zibila puri-purian zegoela hasi zen sortzen; izan ere, 1938ko urtarrilaren 30an Estatuaren Administrazioaren Antolaketarako Legea onartu zen, eta egun berean Francok “Estatu berriaren” lehen Gobernua izendatu zuen, “Burgosko Gobernua” bezala ezaguna. Gobernu horrek 1939ko abuztuaren 11ra arte iraun zuen, Bigarren Mundu Gerraren hasieraren aurretik.

“Espainia Berriaren” oinarriak argi eta garbi utzi zituen hasieratik estatuburuak, eta erregimen egonkor eta iraunkor bat sortzea zen helburu nagusia. Hori dela eta, diktaduraren lehenengo urteak oso pertsonalistak izan ziren, eta liderrarenganako gurtzea beharrezkoa izan zen, gizartearen onarpena lortzeko. Hala eta guztiz ere, erregimen pertsonalista ez zen Francoren figuraren goratzean bakarrik oinarritzen. 1939ko abuztuaren 8an Estatuaren Administrazio Zentralaren Berrantolaketarako Legea onartu zen (Redondo Rodelas, 2006, 55.or); lege horren bidez, Ministroen Kontseiluak lehenago eztabaidatu gabe legeak onartzea ahalbidetzen zion Francori, besteak beste.

Francok hasieratik zekien erregimen egonkor eta iraunkor bat sortu nahi bazuen oinarri garbi eta sendo batzuk izan behar zituela. Hori dela eta, **Eliza Katolikoa**, **alderdia** eta **armada** (Carr, 2008) izan ziren erregimen berriaren zutabe nagusiak, nahiz eta bestelako oinarrizko printzipio batzuk ere nabarmentzekoak diren; hala nola, antikomunismoa, antiliberalismoa eta espainiar nazionalismoa. Frankismoaren sistema politikoak homogeenoa eta itxi itxura bazuen ere, botere maila altuagoa izatea bilatzen zuten familia politikoak ere

bazeuden. Hala ere, orokorrean familia horiek ez zuten bizitza politiko independienterik ezta pentsatzeko era ezberdinik ere (karlistak izan ezik). Hori dela eta, Francok bere lehen urteetan ez zuen arazo handirik izan, botere politikoa oso kontzentratuta baitzegoen haren eskuetan; besteak beste, aipatutako Administrazio Zentralaren Berrantolaketakarako Legearen moduko mekanismo legalei esker.

Hala eta guztiz ere, asko dira diktadura frankistak ideologia zehatz eta garaturik ez zuela onartzen duten autoreak, eta azpimarratzen dute testuinguru politiko, kultural, ekonomiko eta sozialaren arabera moldatu egiten zela erregimena. Hala dio Carlos Barrerak (2002, p. 13):

“Diktadura frankista ez zen totalitarioa, ezta demokratikoa ere (...), baina erregimen totalitario batengatik ezberdintzen zuen bereizgarriak zituen. Barne mailako pluralismo politiko mugatu bat onartzen zuen, bere barruan falangistek kontrolatutako Mugimendu Nazionalaz gain beste familia politiko batzuk baitzeuden. Frankismoak ez zuen landutako ideologia propiorik, hau da, ez zegoen bere horretan “ideologia frankistarik”. Ez zen Franco bereziki arduratzen zuen zerbait, eta printzipio basiko batzuek gidatzen zuten normalean. Ustezko “desideologizazio” honek, hala ere, ez zion diktadurari inposiziorako indarririk kendu”.

Bestalde, hala dio Miguel Ángel Giménez Martínezek (2015, p. 12):

“Francoren diktaduraren iraupen luzea eta laguntza jasotzen zuen taldeen pluraltasuna ikusita, zaila da diktaduraren ideologia bakarra identifikatzea. Italiako faxismoarekin eta Alemaniako nazionalsindikalismoarekin alderatuta, frankismoak bere erreperitorio ideologikoa printzipio ezberdin batzuk oinarri izanda eraiki zuen”.

Bigarren Errepublika indarrean egon zen urteetan, Vatikanok arriskuan ikusi zituen erlijio katolikoak Espainian zituen pribilegio eta abantailak, eta horregatik Espainiako Eliza Katolikoak hein handi batean matxinatuen bandoa lagundu zuen Gerra Zibilean, kontu militarretan zein ideologikoetan. Hori dela eta, Eliza Katolikoa izan zen Gerra Zibila “gurutzada” bezala identifikatu zuena, eta horrek nekazalgoaren eta hiriko burgesiaren zati bat “Espainia Berriaren” proiektura batzea ekarri zuen. Eliza Katolikoak ideologizazio lan handia egin zuen Gerra Zibilean eta diktadura frankistaren lehenengo urteetan, eta eliza tradizionala eta Espainiaren izaera katolikoa benetako abertzaletasunarekin edo patriotismoarekin identifikatzen zuten (Giménez Martínez, 2015), horren biziraupenerako bide bakarra Francoren garaipena zela pentsatuz.

Gerra Zibilean zehar matxinatuen bandoa lurraldea irabazten zihoan heinean, Francorentzat herriaren berkatolizazioa oso garrantzitsua izan zen; Bigarren Errepublikaren aurka altxatzeko arrazoi edo aitzakia handienetariko bat izan zen erlijioaren afera. Hori lortzeko, Eliza Katolikoari eskumen asko eman zizkion erregimenak, eta herriaren kontrol ideologikoaren zati handi bat elizaren eskuetan utzi zuen. Hala, hezkuntza elizak kontrolatu zuen, eta aginte zibil eta eliztarren kooperazioari esker gizabanako zein elkarteek moral katolikoa betetzen zutela bermatu zuten.

Nahiz eta Espainiako Eliza Katolikoaren eta Francoren arteko erlazioa ona izan ia hasieratik, Vatikanoarekin izan zuen harremana ezberdina izan zen. Pío XII Aita Santuaren kezka nagusia Estatu Berriak Hitlerren Alemaniarekin zuen harremana zen. Hori dela eta, Francok Espainiako kardinal primatuari, Isidro Gomári, lasaitasun mezu bat helarazi zion, Espainia Alemaniaren menpe eroriko ez zela ziurtatuz. Baieztapen horren ostean, eta Francok 1939ko apirilaren lehenean garaipena aldarrikatu zuenean, Egoitza Santuaren telegrama bat jaso zuen, non Francori Gerra Zibila irabazteagatik eskerrak eman zizkioten. Hala zioen telegramak:

“Bihotza Jaunarengana jasotzen dugularik, egiazki eskertzen dugu, Berorren Gorentasunaz bat, garaipen katoliko irrikatua Espainian. Bakea erdietsita, arrakasta opa diogu erresuma kutun horri, kemen berrituaz ekin diezaie hain handi egin zuten antzinako tradizioei. Sentimendu hauekin batera eta maitasuna erakutsiz, Aita Santuaren bedeinkapena bidaltzen diogu Berorren Gorentasunari, baita espainiar herri guztiari ere.”

Isidro Gomá Francorekin eta altxatuekin guztiz lerratuta zegoen; hala definitu zuen 1936ko gerra, bando frankistak errepublikarra oraindik garaitu ez zuenean (Fernández García, 1985): “Baieztatu daiteke gaur egun Espainia eta anti-Espainia ari direla borrokatzen, erlijioa eta ateismoa, kristau zibilizazioa eta basakeria”.

Nahiz eta Hirugarren Reichak eta Francoren erregimen berriak antzekotasun asko izan, ezberdintasunak ere bazituzten, eta erlijioarekiko jarrera horietako bat zen. Hirugarren Reichen erlijioak lehentasunik ez zuen bitartean, Francoren erregimen berrian nazionalkatolizismoa ardatz nagusienetako bat izan zen, eta Estatu berriak erlijioaren eta politikaren arteko lotura irudikatu zuen (Gimenez Martínez, 2015). Espainiar nazionalismoa katolizismoaren ikuskera tradizionalista eta kontserbadore batekin konbinatzen zuen nazionalkatolizismoak. Francoren estatuak eta Eliza Katolikoak lan berezia egin zuten nazionalkatolizismoa zabaltzeko, eta kontrol soziala eta politikoa mantentzeko tresna

erabilgarria izan zen. Hezkuntza elizaren eskuetan zegoenez, ikasgeletan ideologizazio lan sutsu bat egin zuten frankismoaren hasieran, eta Espainiar nazioaren izaera katoliko eta kontserbadorea bultzatu zuten. Orduko zinemak, musikak, literaturak eta herri kulturak nazionalkatolizismoa bultzatzen zuela bermatu zuen Francoren gobernuak.

Lehen esan bezala, alderdia izan zen proiektu frankista berriaren zutabeetako bat. Diktadura frankista hasieratik alderdi bakarreko erregimena izan zen; hau da, alderdi bakarra zegoen: *Falange Española Tradicionalista y de las Juntas de Ofensiva Nacional Sindicalista* (FET y de las JONS hemendik aurrera). 1937ko apirilaren 20an *Falange Española de las JONS* eta *Comunión Tradicionalista* batu zituen Francok Bateratze Dekretuari esker, eta matxinatutako bandoak kontrolatutako lurraldeetan gainontzeko alderdi politiko eta antolakunde guztiak debekatu zituen<sup>1</sup>. Hala eta guztiz ere, *FET y de las JONS*en aipatutako alderdiez gain, matxinatutako bandoari gerran ekarpena egin zieten alderdi eta antolakunde politikoak integratu ziren. Egitura politikoez gain, egitura militarrek ere elkartu egin ziren, Reketeak eta Falangea.

Nahiz eta alderdi bakarreko estatua izan erregimen berria, FET y de las JONS alderdiak ez zuen gaur egun ezagutzen ditugun alderdi politikoen modura jarduten. FET y de las JONSen aspirazioa ez zen Estatu Berria kudeatzea, hori Francoren eta bere gertukoaren esku baitzegoen. Hau da, Francoren jarduna ez zegoen alderdiaren menpe, alderantziz; FET y de las JONSek Francorekiko subordinazioa zuen. Hau dela eta, hasieratik Francoren alderdiaren funtzioa bestelakoa izan zen, eta masa alderdi (Gil Pecharroman, 2017) batean bihurtu zen. Hau dela eta, FET y de las JONSen funtzio nagusia bizitza sozial eta politiko guztiaren gaineko kontrola izatea zen; hau da, Espainian politikaren alor guztiak eta hein handi batean bizitza soziala kontrolpean izatea, eta hura alderdiaren erreferentzia ideologikoekiko garatzea: faxismoa, katolizismo politikoa eta autoritarismoa. Honela zioen *Juntas de Ofensiva Nacional Sindicalista*-ren Exekutibo Zentralaren barne zirkular batek, 1933ko uztailean (Aparicio, 1939):

“Alderdiak beharrezkoak zaizkigun bi ahalmenak guztiz ulertu behar ditu: JONSek masa alderdia eta alderdi txikia zian behar dute aldi berean. Hau da, espainiarren masa handietan zuzenean eragiteko ahalmena izan behar dute, hauek politikoki orientatuz, baina aldi berean antolakuntza elastiko eta arduratsua izan behar du”.

---

<sup>1</sup> BOE n°182, 1937/04/20.

Honez gain, deigarria da Francok 1943ko irailean egindako eskaera; izan ere, diktadoreak espreski eskatu zuen FET y de las JONS alderdiari publikoki “*falange*” deitzeari uztea, eta hortik aurrera Mugimendu Nazionala (“*Movimiento Nacional*”) deitzea eskatu zuen.

Azkenik, Eliza Katolikoaz eta alderdiaz gain, armada diktadura frankistaren garapenerako giltzarria izan zen. Lehenik eta behin, Gerra Zibilean bando errepublikarra garaitzeko balio izan zion, eta hortik aurrera erregimena egonkortzeko eta denboran zehar irauteko funtzio estrategikoa bete zuen.

Francok Garaipenaren Eguna erabili zuen bere armadaren idarra erakusteko. 1939ko maiatzaren 19an egin zen desfilea Madrilgo Castellana Pasealekuan. Emilio Castelar plazatik Cánovas del Castillo plazara izan zen desfilea, eta parte hartu zuten unitateen zenbakiak ondorengoak dira (Redondo Rodelas, 2006, p. 57): 115 infanteria unitate, artilleriako 200, borrokarako 150 gurdi, 500 motozikleta, 20 batailoi antiaereo eta 25 antitanke, eta 3.000 auto eta kamioi.

Armada eta armadako goi karguak Francori leial izan zitzaizkien diktadura osoan zehar, eta horregatik ez zuen barne matxinadarik sufritu, Portugalen 1974ean gertatu moduan. Erregimenaren biziraupenerako, beraz, ezinbestekoa izan zen armadaren leialtasun hori (Carr, 2008). 1936ko gerran errepublikarrak garaitu zituzten militar horiek Francoren jarraitzaile eta defendatzaile sutsuenak izaten jarraitu zuten, eta diktadoreak berak ere haiekiko konfiantza handia zuen. Horren eredu da 1969ra arte normalean sei ministro militar egoten zirela. Hala ere, ez zen horrela izan diktaduraren 40 urteetan, eta ministro militarrak zibilengatik aldatzen joan ziren, eta armadaren aurrekontua ere asko gutxitu zen azken urteetan; 1970ean potentzia handien artean txikiena izan zen (Carr, 2008).

#### 4.1.2. Frankismo berantiarra eta irekiera garaia

Tardofrankismo edo frankismo berantiar kontzeptuak Francoren diktaduraren azken hamar edo hamabost urteei egiten die erreferentzia; bigarren frankismo bezala ere ezagutzen da. Ondorengo faktoreak izan ziren garrantzitsuenak erregimenak Estatua gidatzeko modua aldatzeko: lehenik eta behin, nazioarteko testuinguru ekonomiko, sozial eta politikoa guztiz aldatu zen; izan ere, bando matxinatuak 1939. urtean boterea eskuratu eta gutxira bigarren mundu gerra hasi zen, eta garai horretan ideia faxistek eta ultra-nazionalistek onapren handiagoa zuten munduan. Hala ere, handik gutxira, 1945. urtean, Bigarren Mundu Gerra



amaitu zen, eta Ardatzeko Potentziak erori egin ziren. Espainiak, Franco buru zela, Hirugarren Reichari laguntza eman zionez, nazioarteko herrialde gehienek erlazioak hautsi zituen Francoren erregimenarekin —erregimen faxistoidiak zituzten beste hainbat herrialderi ere antzekoa gertatu zitzaien—, eta oso isolatua geratu zen. Marshall Planaren bidez Amerikako Estatu Batuek gerraosteko Europa altxatzeko eman zituzten diru laguntzetatik kanpo geratu zen Espainia, adibidez. Hala, Espainiaren inguruko estatuak azkar berreraiki eta garatu ziren, eta herrialde horiekiko Espainiaren atzerapena hazi egin zen.

Hala ere, handik gutxira, AEBek Espainiarekin berriro ere harremanak izateko pausuak egin zituzten, aliatu interesgarri bat ikusten zuelako, baita Espainiak posizio geopolitiko estrategikoa duelako ere. Hau dela eta, Espainia gutxinaka nazioarteko komunitatean sartzen hasi zen berriro ere, eta Mendebaldeko politikarekin berriro konektatzeak aldaketa batzuk egitea ekarri zuen.

Francoren erregimenak gutxieneko aldaketa batzuk egiteko beste faktore garrantzitsu bat biztanleriak erregimenarekiko zuen mespretxua zen. Gerra Zibilean eta ondorengo urteetan erregimenak lan asko egin zuen frankismoaren ideia nagusiak zabaltzeko, eta biztanleriaren zati handi batek bere egin zituen ideia horiek. Hala ere, denborarekin sektore batzuk nazkatzen hasi ziren, eta erregimenaren aurkako sentimendu horiek nabaritzen hasi ziren, estatuko eskualde batzuetan bereziki. Hau dela eta, erregimena aldaketa batzuk egiten hasi zen, iritzi horiek baretzeko eta boterea mantentzeko.

Beraz, esan daiteke erregimenak egin zituen aldaketa hauek testuingurura moldatzeko egin zituela. Hau da, nazioarteko paradigma ekonomiko, sozial, politiko eta ideologikoa aldatu egin zen, eta bakarrik eta isolatuta ez geratzeko —onespena lortzeko, azken finean— erregimenaren liberalizazio lauso bati ekin zion gobernuak.

Espainiako Estatu barruan erregimenarekiko zegoen mespretxua ez zegoen sektore proletarizatuenetan hain hedatuta; batez ere, kapa intelektualenetan hasi ziren zabaltzen diktaduraren aurkako iritziak, unibertsitateko ikasle gazteen artean bereziki. Horren jakitun, frankismoaren familia ohikoetatik kanpoko jendea hasi zen sartzen Estatuaren postu garrantzitsuetan, eta 1957. urtean Opuseko bi kide sartu ziren gobernuan: Mariano Navarro Rubio Ogasun Ministro izendatu zuen Francok, eta Alberto Ullastres Komertzio Ministro; azken hau izan zen Europar Komunitateetan egon zen lehen Espainiako ordezkaria.

1959. urtean egoera ekonomikoak okerrera egin zuen nabarmen, eta aipatutako bi ministroak Ekonomia Nazionala Egonkortzeko Plana garatzen hasi ziren, Egonkortze Plana bezala ezaguna. Plan honen helburu nagusia ekonomia berriz errekuaratzeko egonkortasun bat ematea zen, eta merkatuaren liberalizazioa izan zen horretarako erabili zuten tresna (Sanchez eta Sanz, 2013). Diktadurak zeramatzen hogeitun urteetan ekonomia gidatu zuen autarkiari bizkarra ematea izan zen hau. Bestalde, garbi ikusi zen ekonomiaren sektore estrategikoenen inguruko erabakiak teknokratik hartzen hasi zirela. Krisia dela eta, milioi bat pertsona baino gehiago Europara migratu ziren.

1962. urtean beste hiru aldaketa egin zituen Francok gobernuan: Gregorio López Bravok hartu zuen Industria eta Kanpo Kontuen Ministerioa; Laureano López Rodó izendatu zuten Garapen Planaren Komisaldegiko buru; eta Manuel Fraga Iribarnek hartu zuen Turismo eta Informazio Ministerioa.

Aldaketak gobernuan bertan emateaz gain, diktadura frankistaren bilakaerak aldaketa soziologikoak ere ekarri zituen. Erregimenaren lehen urteetan, autarkia garaian, protekzionismo eta arrazionamendu indartsu batekin lortu zuen Francok bere gobernuaren biziraupena, errepresio politiko, kontrol sozial eta armadaren presentzia handiaz lagunduta. Mendebaldeko gainontzeko demokrazia burgesekin deskonexio handia zuen Espainiak, baina gobernuko goi karguak ohartu ziren boterean jarraitu nahi bazuten mendebaldeko blokean integratzen hasi beharko zirela; horregatik hasi ziren egiten, hain zuzen ere, aipatutako aldaketa politikoak. Baina, horrez gain, beste aldaketa handi bat etorri zen, Francok *petit comiteen* bere garaipen gorenatzat hartzen zuena: Espainiako klase ertaina (Rodriguez Lopez, 2022).

1962an hasi zen Espainia Nazioarteko Komunitatean integratzeko prozesua, eta 1971. urtean Richard Nixon Amerikako Estatu Batuetako presidentea Vernon Walters generala Francorekin hitz egitera bidali zuen, bera hil ostean Espainiarekin zer gertatuko zen jakiteko. Hala jaso zuen bilera Waltersek berak, bere *Misiones Discretas* liburuan (Rodriguez Lopez, 2022, p. 17): “[Francok] El Pardon jaso ninduen, Lopez Bravo ministroarekin batera. Franco zutik zegoen, eta Nixonen gutun bat eman nion, nirekin zintzotasunez hitz egiteko eskatzen”.

Francoren erantzuna ondorengoa izan zen:

“Zure presidenteari benetan interesatzen zaiona nire heriotzaren ostean Espainiarekin zer gertatuko den da, ezta? Nik hainbat instituzio sortu ditut, eta jendeak uste du ez dutela funtzionatuko.

Oker daude. Printzea [Juan Carlos] Errege izango da, ez dagoelako alternatibarik. Espainia urrun joango da zuek, ingelesek eta frantsesek nahi duzuen bidean: demokrazia, pornografia, droga, zer dakit nik. Zorakeri asko egongo dira, baina horietako bat ere ez da Espainiarentzat zorigaiztokoa izango. Duela 40 urte herrialde honen gobernu nire gain hartu nuenean aurkitu ez nuen zerbait utziko dut nik. Espainiako klase ertaina. Esan zure presidenteari Espainiako herriaren zentzu onean konfiantza izan dezan; ez da beste gerra zibilik izango” (Rodríguez Lopez, 2022, p. 17).

Hain zuzen ere, biziraupena bermatua zuen klase ertain zabal baten sorrera giltzarri izan zen trantsizio demokratikoan iraultza saiakerak neutralizatzeko, nahiz eta diktadorearen azken urteak politikoki eta sozialki oso mugituak, oso gatazkatsuak izan. Horrek ez du kentzen trantsizioa bide zaila izan zenik, matxinadak, grebak eta atentatuak egon baitziren, baita estatuaren parteko errepresioa eta zapalkuntza ere; ETAren sorrera eta bilakaera militarra, beste talde batzuen artean, horren adibide ere bada. Baina gizartearen zati handi batek bizitza egonkor eta ziurtatu bat izateak, 1930eko hamarkadan orokorrean herrialde osoan gertatzen ez zen moduan (leku garatu eta industrialenetan hasia zen jada, hiri handietan, Euskal Herrian, Katalunian eta Madrilen, esaterako), asko ziurtatu zuen mendebaldeko demokrazia burges bat bihurtzeko bide edo trantsizioa.

Eraldaketa horrek, bestalde, bere eragina izan zuen garaiko prentsan ere. Aipatu moduan, 1966an Prentsa eta Inprenta Legea onartu zen, 1938ko legearekiko aldaketa asko ekarri zituenak. XIX. mendean, AEBetan batez ere, prentsa langileriaren kapa zabalenetara zabaltzen hasi zen, prezio oso merkeekin. Egun ezagutzen dugun demokrazia formen lehen adibideetan, izan AEBetan, Erresuma Batuan edo Frantzian, prentsa askatasuna oso garrantzitsua izan zen, eta Espainiak mendebaldeko blokean integratu eta bertako herrialdeen sistema politikoa sortu nahi bazuen, aldatu beharreko zerbait hori bera zen: prentsaren eredia.

Hori dela eta, 4.4 atalean azalduko dugun moduan, erregimenak 1938ko prentsa legea 1966koarengatik aldatu zuen. Bai forma aldetik, baita edukiaren aldetik ere, oso lege ezberdinak ziren, ez zuten zerikusirik bata bestearen artean. Lehenak, gerra betean idatziak, bando errepublikarraren prentsaren aurka egitea zuen helburu nagusi, hau da: hura ordezkatzea. Hala, 1938an matxinatuek jada beregain zituzten lurretan prentsa guztiz gobernuaren esku egotea zen helburua. Askoz motzagoa zen lehena, 23 artikulukoa, baina 1966koak, Manuel Fraga Iribarne Informazio eta Turismo ministroak onartuak, 72 artikuluko zituen. Bigarrenak ere informatzeko eta adierazteko askatasuna mugatzeko helburu garbia zuen, baina irekiagoa zen aurrekoa baino: enpresa pribatuei egunkarien publikaziorako eskubidea zabaltzeko zentzurik eta aurretiazko zentsura salbuespen eta gerra egoera garaitara

mugatzen zuen. Hala ere, arau guztiz antidemokratikoak ere bazituen: hala nola, gobernuarentzat interes orokorreko gaiei buruzko Prentsaren Zuzendaritza Orokorraren oharrak jartzera behartzea, argitalpenen bahiketa administratiboa eta argitalpenen aurretiazko depositoa Informazio eta Turismo Ministerioan. Frankismo garaiko bi prentsa legeak 5.1 atalean azaltzen dira zabal.

## 4.2. Franco eta Hitlerren arteko elkarrizketa

1940ko urriaren 23an, Francisco Franco eta Adolf Hitler Espainiako eta Alemaniako estatuburuak Euskal Herrian elkartu ziren, Hendaian (Lapurdi), Espainiaren eta Frantziaren arteko mugan. Hendaia jada okupatua zuten Ardatzeko Potentziek, eta Vichy-ren Frantzia bezala ezaguna den erregimena sortu zuten, Ardatzeko Potentzien eskumendeko estatua. 46 eguneko *Blitzkrieg* edo tximista-gerra baten ostean Alemaniako armadak Frantziaren zati handi bat hartu zuen, eta 1940ko ekainaren 22an armistizioa sinatu zuten Hirugarren Reicharen eta Philippe Petain mariskalaren agintariek. Francoren eta Hitlerren arteko elkarrizketaren testuingurua garrantzitsua da jakitea: Espainiak urte eta erdi zerman 1936ko gerra amaitu zenetik, eta Francoren erregimena lehen urratsak ematen ari zen. Hala ere, krisi sakonean zegoen murgilduta, gerrak txikituta utzi baitzuen herrialdea. Bere aldetik, Alemania Bigarren Mundu Gerra betean zegoen; urtebete baino gehiago pasa zen Hitlerrek Polonia inbaditu zuenetik, eta hainbat herrialde okupatu zituen Alemaniako armadak ordurako, Norvegia, Danimarka, Herbehereak, Belgika, Luxenburgo eta Frantziaren zati bat, besteak beste. Alemaniaren bandoa indarra hartzen hasi zen, Italiak ere gerra deklaratu baitzuen Erresuma Batuari eta Frantziari, eta gerran beste aurrerapauso handi bat emateko kolpea prestatzen ari zen jada: Sobietar Batasunaren okupazioa —Bizargorri Operazioa bezala ezaguna—.

Hitler Alemaniaren puntu gorenean iritsi zen Hendiara: Europa erdiaren jabe zen, bai okupatutako lurrengatik edo aliatuak ziren herrialdeengatik, eta etsai handienetako bati, Frantziari, kolpe handia eman zion herrialdearen erdia okupatu ostean, lehen esan dugun moduan. Hala, indar gehiago batu nahi zituen Hitlerrek Europa guztia konkistatzeko, eta Espainia aliatu posibleetako bat zen: urtebete lehenago amaitu zen 1936ko gerra Espanian, eta erabateko boterea zuen Francok: etsai nagusiak erbesteratu behar izan ziren, eta herrialdea utzi ez zutenak oso ezkutuan geratu ziren, Estatu indartsu eta oso autoritarioa baitzuen, edozein etsai zapaltzeko. Nahiz eta Alemaniako Langile Alderdi Nazionalsozialista eta

Espainiako FET y de las JONS ideologikoki antzekoak ez izan eta ezberdintasunak izan haien artean, oso lerrokatuta zeuden, eta aliatu posible ikusten zuen batak bestea. Espainia Bigarren Mundu Gerran sartzeko helburua zuen Hitlerrek bileran, baina azkenean ez zen hala suertatu.

Espainiak hiru urte luzeko gerra amaitu berri zuen, eta nahiz eta Estatua indartsu mantendu, krisi handia zegoen Espainian; nolabait, “berreraikitzen” ari zen. Hala iritsi zen Hendaia bilerara Francoren armada: airean, 162 ehiza-hegazkin eta bonbardatzeko 164 hegazkin zituen, eta itsasoan 6 kruzero, 20 destruktore, 5 kanoiontzi, 8 torpedo-ontzi eta 6 itsasazpiko, besteak beste. 87 infanteria erregimentu zituen, artilleriako 47, eta beste hainbat azpitalde eta lantalde; osasungintzakoak, albaitaritzakoak, defentsa kimikoa... (Martin Alarcon, 2006, 13.or).

Egoera horretan, Francori ez zitzaion bereziki interesatzen gerran sartzea, beste fronte bat irekitzea baitzen; nahikoa lan zuen bere Espainiaren ideia sartzeko. Hala adierazi zion Francok Hitlerri:

“Oraingo gerran, gustu handiz borrokatuko luke Espainiak Alemaniarekin batera. Hala ere, horretarako gainditu behar diren zailasunak zeintzuk diren garbi daki Führer-ak”

Hori dela eta, gauza asko eskatu zizkion Francok Hitlerri gerran sartzeko. Lehena, lurralde konpentsazioa; Frantziaren esku zegoen Maroko eskatu zuen Francok, baita Algeriaren zati bat eta Kamerunen bat ere. Bestalde, Erresuma Batua garaitu ostean Gibraltar berreskuratzea ere eskatu zuen. Lurralde kontuez gain, lehengaiak jasotzea eskatu zuen Francok, elikagaiak, petrolio eta armak batez ere. Esan ere, lehen aipatu moduan, 1936ko gerraren ostean krisi sakonean zegoen Espainia, eta gerrak nekazaritza txikituta utzi zuen. Oinarrizko elikagaien falta handia zegoen, eta errazionamenduaren moduko neurriak ezarri ziren diktaduraren lehen urteetan.

Hitlerrentzat eskakizun horiek gehiegizkoak ziren, baina lehenagotik ere bazekien hori bera eskatuko zuela Francok, lehenagotik karta bidez izandako elkarrizketetan eta beste mandatari batzuen arteko bileretan hala esan baitzioten. Hitlerren helburua zera izan zen Hendaian egin zuten zazpi orduko bileran: Francoren pretentsioak jaitea eta gerran sartzea onartzea. Hala ere, jakina den moduan, Hitlerrek ez zuen lortu, eta Espainiak ez zuen Bigarren Mundu Gerran parte hartu. Horren ordez, tropa batzuk bidali zituen Francok Alemaniarekin batera borrokatzera —Dibisio Urdina—, eta 1941 eta 1943 urteen artean 45.000 soldadu espainiar inguruk lagundu zioten Alemaniari.

Gerran beste aliatu bat izateaz gain, Hitlerrek helburu nagusi bat zuen Espainia gerran sartzen bazen: Mediterraneoaren jaun eta jabe izatea. Izan ere, Gibraltar Erresuma Batuarena zen oraindik, eta giltzarria zen Iberiar Penintsularen zati hori Winston Churchill Erresuma Batuko presidentearantz (Carr, 2008). Hitlerrek kosta ala kosta bereganatu nahi zuen Mediterraneoarako sarrera kontrolatzen duen puntu hori, baina Francoren eskakizunak gehiegizkoak ziren Alemaniarentzat. Hala, 7 orduko elkarrizketaren ostean, ez zuten Espainia gerran sartzeko akordiorik lortu bi aldeek, eta bakoitzak bere aldetik jarraitu zuen.

Francoren kanpo-politika aldakorra izan zen Bigarren Munduko Gerran. Hitlerrekin eta Ardatzeko Potentzietan lerrokatuta bazegoen ere, Bigarren Munduko Gerrarekiko ikuspuntua aldatzen joan zen, bere interes propioak lehenetsi baitzituen beti (Carr, 2008). Hala, Francok garbi zuen Espainiaren kanpo-politika “espainiarren interesek” determinatuko zutela. Ardatzeko Potentzien galerak nabarmenago egiten hasi zirenean, eta porrot baten aukera gertu ikusten zenean, Espainiaren arazo nagusia garaileekiko diplomazia osasuntsu bat eratzea zen. Izan ere, aipatu moduan, 1936ko Gerrak suntsituta utzi zuen herrialdea, eta gosea eta beharrak oso zabalduta zeuden. Gainera, espainiarren biziraupena aliatuen inportazioekiko oso menpekoa zen. Hori dela eta, gutxinaka Hitlerri ematen zion laguntza murrizten hasi zen Franco (Carr, 2008): Dibisio Urdina erretiratuarazi zuen 1943an, eta bi herrialdeen arteko kolaborazioa tungstenoaren esportazioan geratu zen soilik. Hala, AEBek 1944aren hasieran uste zuten Espainia jada neutraltasun fase batean sartu zela.

### 4.3. Burgosko Prozesua

1970. urteko abenduan, diktadura frankistan zehar egin zen epaiketa edo prozesu garrantzitsuenetako bat egin zen, non hamasei pertsona epaitu zituzten, erregimenaren aurkako hainbat delitu egitea egozten baitzieten. Prozesu politiko (Salaberri, 1971) honek ezaugarri ezberdinengatik nazioarteko dimentsioa hartu zuen berehala, eta Espainiako Estatuko politika asko baldintzatu zuen hurrengo urteetan. Mendebaldeko demokrazia askotan heriotza zigorra abolitzen ari ziren bitartean, amaierako epaian bederatzi heriotza zigor ezarri izanak, nahiz eta hurrengo egunean indultatu, bazterrak nahasi zituen eta diktadura frankistaren izaera autoritarioa agerian utzi zuen nazioarteko aktore ezberdinrentzat.

Prozesu honetan epaitu ziren gertakariak 1968 urtetik aurrerakoak dira (Chueca, 2020), baina garrantzitsuenak Melitón Manzanás, José Pardines Arcay eta Fermín Monasterio Pérezen erailketak dira. 1968ko ekainaren 7an José Pardines Guardia Zibila hil zuten polizia

kontrol batean; bi hilabete beranduago, abuztuaren 2an, ETAk Melitón Manzanos Donostiako komisariako Ikerketa Sozialerako Brigadaren burua hil zuen (brigada hori “polizia politikoa” bezala ere ezaguna zen). Azkenik, 1969ko apirilaren 9an Fermín Monasterio Pérez taxi gidaria hil zuten, autoan zauritu bat sartu baitzuten, eta taxi gidariak zauriak zerk eragindakoak ziren argitu arte martxan jarraituko ez zuela esan baitzien. Eraiketa hauez gain, odolik gabeko atentatuak eta lapurretak ere epaitu zituzten, eta ez egileak bakarrik, hauei lagundu zieten pertsonak ere epaitu baitzituzten.

Lehen aipatu bezala, ezaugarri zehatz batzuek prozesu edo epaiketa hau oso garrantzitsu bihurtu zuten, eta nazioartean oihartzun handia hartu zuen berehala (Chueca, 2020). 4.1.2 atalean azaldu dugun moduan, diktadura frankista nazioarteko onarpenerako prozesuan murgilduta zegoen, eta onespren hori lortzeko barne aldaketa batzuk egiten zebilen erregimena, alor sozial, ekonomiko, politiko eta judizialean. Eraldaketa prozesu horretan iritsi zen prozesu politiko hau, eta nazioartean haserrea eta gaitzespena sorrarazi zuen, eskatzen ziren zigorengatik eta sententziagatik: hamasei prozesatuen artean bederatzi heriotza zigor, 519 kartzela urte eta sei milioi pezetetako isunak. Esan beharra dago, epai mahaiak eman zuen epaia fiskaltzak eskatzen zuena baino gogorragoa izan zela. Zigor gogorrena Eduardo Uriarte Romerok eta Jokin Gorostidi Artolak jaso zuten, bi heriotza zigor eta 30 urteko kartzela zigor ezarri baitzizkieten. Arantxa Arruti Odriozola izan zen absolbitu zuten prozesatu bakarra. Hala ere, kondenak baieztatu eta hurrengo egunean, 1970eko abenduaren 29an, Erresumako Batzordea elkartu zen, eta hurrengo egunean, abenduaren 30ean, Ministroen Batzordea (Zaragoza, 1993).

Azkenean, 1977ko Amnistia Legearengatik aske utzi zituzten denak, baina horietako bost Oslora eta Bruselara bota zituzten amnistiatu aurretik. Nahiz eta Burgoseko Prozesuko epaituetako bat ere ez exekutatu, Francoren diktaduraren azken urteetan hainbat pertsona exekutatu zituzten: 1974an Salvador Puig katalana garrote bidez hil zuten, eta 1975ean diktaduraren azken bost fusilamendu ofizialak gertatu ziren (ETAko “Txiki” eta Otaegi eta FRAPeko Jose Humberto Baena, Jose Luis Sanchez Bravo eta Ramon Garcia Sanz).

Burgosko Prozesua prozedura sumarisimoa izan zen; hau da, kasuaren “garrantzia eta larritasuna” zela eta, lehenetsua eman zitzaion kasuari, eta urgentziaz eta azkartasunez eman zen. Bestalde, lehen aipatu bezala, prozesu politikoa izan zen.





## 5. Analisia

Metodologiaren hasieran aipatu moduan, egunkarien artikuluak aztertzen hasi aurretik ezinbestekoa da hedabide bakoitzaren historia laburki ezagutzea (Hernandez, 2015), baita zuzendariak zeintzuk ziren eta agintariekin zuten harremana nolakoa zen jakitea ere. Hori dela eta, hauek dira ikertuko ditugun hiru hedabideak. Euskal Herriko hiru hedabide dira, Bizkaikoak eta Gipuzkoakoak. Hala, Francoren eta Hitlerren arteko bilerak Euskal Herriko prentsa ofizialean izan zuen presentzia ikertuko dugu.

Lanaren atal honetan, lehenbizi diktadura frankistan indarrean egon ziren bi prentsa legeen aurkezpen eta analisi bat egingo dugu, eta horren ostean ikertuko ditugun hiru egunkarien testuingurua eta egoera azalduko ditugu. Azkenik, egunkari horietako aterakin edo idazkiak analizatuko ditugu, aipatutako bi gertakari historiko garrantzitsu horiei buruz eman zuten informazioa nolakoa zen jakiteko eta diktaduraren hasieratik amaierara egon zen bilakaera nolakoa izan zen jakiteko.

### 5.1 Diktadura frankistako prentsa legeak

Diktadura frankistak iraun zituen ia 40 urte luzeetan, bi izan dira prentsa eta inprenta arautu dituen legeak. Lehen, 1938ko apirilaren 22an aurkeztu zuten, Ramon Serrano Suñer Burgoseko gobernuaren barne ministroak bultzatuta. Lege hau argitaratu zutenean Gerra Zibila oraindik ez zegoen amaituta, baina bando matxinatuak zituen lurraldeetan prentsa erregulatzeko balio izan zuen. Handik 28 urtera, 1966. urtean, Prentsaren eta Inprentaren Legea onartu zuten —14/1966 zenbakia—, Manuel Fraga Iribarne gazte batek zeraman Turismo eta Informazio Ministerioak bultzatuta. Manuel Fraga 1962. urtean iritsi zen Francoren Gobernura, eta Gabriel Arias Salgadorek lekua hartu zuen aipatutako ministerioaren buru gisa; beste ministerio batzuetan gertatu zen bezala, aldaketa hau gobernuaren liberalizaziorako pausu otzan bezala egin zuten (Sueiro eta Díaz Nosty, 1986), urte batzuk lehenago gertatzen ari zenarekin jarraituz.

Lehen aipatu bezala, urte batzuk lehenago hasi zen eraldaketa eta irekiera prozesu hori, nazioarteko onespina lortzeko eta diktadurak Espainiako Estatu barruan sortzen zituen mesfidantzekin amaitzeko.

#### • 1938ko Prentsa Legea:

Lege honen helburua matxinatutako bandoak bere gain zituen lurraldeetan prentsa guztiz gobernu berriak kontrolatzea zen. Haien aburuz, aurreko urteetan zegoen prentsa “sektario eta antinazionala zen”<sup>2</sup>, eta horrekin amaituko zuen lege bat sortu zuten. Aurretik zegoen prentsaren lekuan “interes nazionalari zerbitzu egingo dion prentsa” sortu nahi zuen Francoren gobernu berriak, kazetaritza “konbentzional eta anakronikoa” atzean utziz<sup>3</sup>. Hala dio, zehatz mehatz, Estatuaren Buletin Ofizialean argitaratu zuten legearen hitzaurreak:

“Estatu Berriak premia errebisatu behar zuen lehenengotariko kontzeptu zaharra Prentsa zen. Gudu zelaietan Aberria hiltzora eramane zuten printzipioen aurka borrokatzen zen bitartean, ezin zen “laugarren botere” hori existitzen jarraitzea baimentzen zuen sistema bere horretan utzi. Estatuari Nazioaren ahotsak igortzea, eta Nazioari Estatu eta Gobernu Berriaren aginduak komunikatzea dira Prentsaren funtzioak. Bestalde, Prentsa kontzientzia kolektibo baten eta kultura popularraren eraikuntzan funtzio garbi bat betetzen du, eta kazetaritzari ezin zitzaion Estatutik kanpo bizitzen jarraitzen utzi. Espainiari Nazio batu izaera itzultzeko lanean dabilzan pertsonak ditugu gaur testigu, eta egunkariak interes nazionalaren zerbitzura egoteko lege eta arau batzuk behar direla uste dute, kazetaritza konbentzional eta anakroniko batetik kazetaritza moderno eta zehatzago batera igarotzeko. Beti ere, egian eta erantzukizunean oinarrituta”.

Legea luzea da, 23 artikulukoa, baina ondorengo puntu edo artikulua dira azpimarratzekoak:

Lehenengo artikulua estatuari ematen dio prentsa antolatze, zaintze eta kontrolatzeko eskumena.

Bigarrenak, hainbat funtzio edo ahalmen ematen dizkio estatuari: egunkari kopuru eta haien luzapena erabakitzea, zuzendariak aukeratzea, jardun periodistikoa erregulatu eta arautzea, eta zentsura.

Laugarrenaren arabera, organo zentralak eta probintzialek egikaritutako dituzte lehen artikuluko eskumenak. Horretarako, probintzia bakoitzean Prentsa Zerbitzua sortu zuten, Prentsa Zerbitzu Nazionalarekiko dependienteak.

Seigarren artikulua dio Prentsa Zerbitzu probintzialen esku egongo dela zentsura ezartzea, beti ere Prentsa Zerbitzu Nazionalak ezarritako irizpideen arabera, edo Gobernadore Zibila ezarritako irizpideen arabera, gai lokal edo probintzial baten inguruan bada. Bestalde,

---

<sup>2</sup> BOE, 1938ko apirilaren 24a. Prentsa legea.

<sup>3</sup> BOE, 1938ko apirilaren 24a. Prentsa legea.

Prensa Zerbitzu probintzialen esku egongo da bere esku dauden egunkarien inguruko informazioa helaraztea Prensa Zerbitzu Nazionalari, delituak edo arau hausteak helaraziz.

Hamaikagarren artikulua arabera, Falange Española Tradicionalista y de las JONSen egunkarien jabe edo zuzendariak Mugimenduaren Prensa eta Propaganda Ordezkaritza Nazionalak proposatuko ditu.

Hamairugarren artikulua dio Barne Ministroak egunkari bateko zuzendari bat kargutik kendu dezakeela, Estatuko bizikidetzaren aurkako jardunean ibili dela uste badu.

Hemezortzigarren artikulua dio Prensa Zerbitzu Nazionala kontrolatzen duen Ministerioak edozein idazki zigortzeko eskumena izango du, beti ere idazki horrek Nazioaren edo Erregimenaren izen onaren aurka zuzenki edo zeharka egiten badu, Estatu Berrian Gobernuaren lana oztopatzen badu, edo intelektualki ahulak direnengan ideia kaltegarriak zabaltzen badituzte.

Hemeretzigarren artikulua arabera, desobedientzia, erresistentzia pasibo edo ezarritako arauak urratzea zigortuak izango dira.

Hogeigarren artikulua zuzendariari edo enpresei ezarri ahal zaizkien zigorrak aipatzen ditu: isunak, zuzendariak kargutik kentzea, kargutik kendutako zuzendarien izena Kazetarien Erregistrotik ezabatzea, eta egunkaria bahitzea. Hurrengo artikulua dio aipatutako lehen hiru zigorrak Ministroaren esku egongo dira.

22. artikulua dio egunkarien bahitzea erregimenaren aurkako falta larri eta errepikakorrek gertatzen badira gertatuko dela, eta erabaki hori Gobernuaren Buruaren esku dagoela gehitzen du.

• **1966ko Prensa Legea:** Diktadura frankistako bigarren prentsa legea, Fraga Legea bezala ezaguna, aurrez zegoenarekin alderatuz oso ezberdina da; bai egitura aldetik, eta baita eduki aldetik ere.

Prensa lege honek 72 artikulua ditu, eta 1938. urtekoak ez bezala, hamar kapitulu ezberdinetan dago banatuta<sup>4</sup>. Atal bakoitzak prentsaren eta informazioaren gai bat lantzen du; lehen atalak, adibidez, prentsa eta inprenta askatasunak arautzen ditu. Bigarren lege hau aurrekoa baino luzeagoa eta ezberdina denez, ez da erraza alderaketa bat egitea, baina

---

<sup>4</sup> BOE, 1966ko martxoaren 18ko Prensa eta Inprentaren legea.

berdintasun eta desberdintasun batzuk azalerauko ditugu, diktadura frankistaren aldaketaz pixkabat jabetzeko.

Prensa lege honen aldaketa nagusia sarreran ikusi dezakegu; hala dio legeak:

“(...) modu honetan, esan dezakegu lege honen erantze printzipio nagusia pertsonen haien pentsamenduak adierazteko askatasuna ahalik eta gehien garatzea da (...) hau dela eta, adierazpen askatasuna, enpresa askatasuna eta zuzendariak aukeratzeko askatasuna lege honen printzipio nagusiak dira”.

Bigarren artikuluan ikusi dezakegu bi legeen arteko antzekotasun handi bat; artikulua honek dio adierazpen askatasuna eta informazioak zabaltzeko eskubidea dutela espainiarrek, beti ere ondorengo mugekin. Muga horietako bat Funtsezko Legeak eta Mugimendu Nazionalaren Printzipioen Legea errespetatzea da.

Lege berri honen aldaketa nagusia, eta kazetarien eta egunkarien jarduna aldatu zuena, hirugarren artikuluan ikusi dezakegu. Zentsurari buruz hitz egiten du artikulua honek, eta hala dio, hitzez hitz: “Administrazio Publikoak ezingo du aurretiazko zentsura erabili, ezta beharrezko kontsulta eskatu ere, salbuespen eta gerra egoeretan izan ezik”. Artikulu honi esker, egunkari batzuk lehenago zentsuratu egiten ziren gertakarien inguruan informatzen hasi ziren. Adibidez, langileen grebei buruz edo unibertsitateetan jazotako liskarren inguruan albisteak zabaltzen hasi ziren. Beraz, bigarren eta hirugarren artikulua batera kontuan hartuta ondorioztatu dezakegu zentsurarekin amaitzeko eta prentsa askatasuna handitzeko borondatea zegoela lege berriarekin, baina muga garbiak zeuden, salbuespen egoera bat deklaratu zegoenean edo egunkari edo informazio bat Mugimendu Nazionalaren printzipioen aurka edo erregimenaren Funtsezko Legeen aurka zihoanean.

Hamaseigarren kapituluak, ‘Enpresa askatasuna’ izenekoak, Espainian jaio eta bizi zen pertsona orori enpresa periodistikoak sortzea edo bertan parte hartzea ahalbidetu zion. Lehen ikusi dugun bezala, 1938. urteko legearen bigarren artikulua Estatuari eman zion egunkari kopurua determinatzeko eskumena.

37. artikulua egunkarietako zuzendariari egunkariaren edozein testu original debekatzeko eskubidea ematen dio. Estatuari enpresa periodistiko gehien zuzendariak erregimenarekin lotuta zeudela jakinda, nolabaiteko kontrola ezartzea bermatzen zion.

Nahiz eta, aipatu bezala, aurretiazko zentsura debekatua egon, 64. artikulua idazkiak bahitzeari atea ireki zion. Hala dio, zehatz mehatz, legeak: “Administrazioak uste duenean

Prensa edo Inprentaren bitartez delitu bat egin dela, neurri judizialak hartu aurretik idazki edo publikazio baten bahiketa agindu ahal izango du”.

Laburbilduz, bi legeak alderatuta bilakaera handi bat dagoela esan daiteke. Aldaketa nagusia aurretiazko zentsura ezabatzea izan zen; honek guztiz aldatu zuen diktadura frankistaren azken urteetako prentsa, kazetaritza plural eta irekiago bat sortuz. Hala ere, esan beharra dago eguneroko prentsan ikusi zen aldaketa ez zela hain handia izan; lehen zentsuratzen ziren gai asko publikatzen hasi ziren, noski, baina ikuspuntuak antzekoa izaten jarraitzen zuen, eta erabiltzen zuten hizkerak oso partziala izaten jarraitzen zuen. Bestalde, azpimarratu behar salbuespen egoeretan aurretiazko zentsura erabiltzen zela, eta behin baino gehiagotan dekretatu zen diktaduraren azken urteetan salbuespen egoera. 1956. urtean dekretatu zen lehenengoz salbuespen egoera, eta gero 1962an, 1967an, 1968an, 1969an, 1970ean eta 1975ean.

Hala ere, bigarren artikulua garbi uzten du egunkariak Mugimendu Nazionalaren Printzipioen Legea eta erregimenaren Funtsezko Legeak errespetatu behar dituztela, eta horrek argi eta garbi mugatu zuen prentsa askatasuna.

Ondorioz, esan daiteke lege hau diktadura frankistaren modernizazio eta irekiera garaiko lehenengotariko legea izan zela hau, eta autore batzuentzat garrantzitsua izan zen. Hala dio Carlos Barrerak, Nafarroako Unibertsitateko Espainiako Kazetaritzaren Historiako irakasleak (Barreira, 1997):

“Diktadura frankistaren testuinguruan, erregimenaren irekiera edo erreforma prozesuan aurrerapausu garrantzitsua izan zen lege hau. Hare gehiago, baieztatu daiteke lege hau politika arloan egin zen erreforma irekitzaile serio eta landu bakarra izan zela; izan ere, bestelako askatasun publiko klasiko batzuk, biltzeko edo elkartzeko askatasunak adibidez, ia garatu gabe geratu ziren”

## 5.2 El Correo Español-El Pueblo Vasco eta La Voz de España

1936ko gerran eta diktadura frankistan Euskal Herriko egunkari garrantzitsuenak izan ziren El Correo Español-El Pueblo Vasco eta La Voz de España, lehena Bizkaian batez ere, eta bigarrena Gipuzkoan. La Voz de España Gipuzkoako egunkari salduena eta garrantzitsua izan zen (Diaz Noci, 2000). Izan ere, Gipuzkoan saltzeaz gain, edizio bereziak zituen Araban, Burgosen, Logroñon eta Miranda de Ebron, eta Gipuzkoako herri garrantzitsu batzuetan edizio lokalak ere bazituen.

El Correo ere oso egunkari garrantzitsua izan zen Bizkaian, nahiz eta beste lehiakide bat izan zuen diktaduran zehar: La Gaceta. Bigarren hori izan zen salduena ia diktaduraren urte guztietan, baina amaieran asko gerturatu ziren El Correoren salmentak; trantsizioan, baina, garai berrietara eta gizarte demokratiko batek zituen eskakizunetara hobe moldatu zen El Correo, eta horrek bizirautea ahalbidetu zion (Diaz Noci, 2000). El Correok gaur egun arte iraun du, eta egun Bizkaiko egunkaririk salduena da.

#### · **El Correo Español-El Pueblo Vasco:**

1938. urtean, Francoren Gobernu berriak errepublikarren esku ez zeuden lurraldeetan egunkariaren kopurua jaitsi nahi zuen (Sanchez-Taberner, 1989), eta hortik aurrera egunkariaren kopurua probintzia bakoitzaren biztanleriarekiko proportzionala izan zen. Hau dela eta, Bizkaian bi egunkari bakarrik ahalbidetu zituen goizeko bat (*El Correo Español*) eta arratsaldeko bat (*Hierro*). *La Gaceta del Norte* ere editatzen jarraitzeko baimena lortu zuen, baina *El Pueblo Vasco* ez; hau dela eta, *El Correo Español* egunkariarekin elkartzerara behartu zuten, publikatzen jarraitu nahi bazuten.

Hala azaldu zuen El Pueblo Vascok fusio behartu hau (Sanchez-Taberner, 1989):

“Espainia batu eta ordenatu batean, prentsa indartsu bat behar da, baina ez oso anitza. Uste oso honek El Correo Españolekin batzera bultzatu gaitu, FET y de las JONSen organoa, Estatu berriaren nerbio eta espiritua. El Correo Españolekin bat egitea, laburtzeko, Espainia berriaren zerbitzura berehala jartzeko egin dugun esfortzua da”

Adierazpen hauetan garbi ikusten da El Correo Español nondik eta zertarako jaio zen, baita El Pueblo Vascok zituen asmoak eta ideologia ere.

*El Pueblo Vasco* 1910. urtean jaio zen, eta egunkari honetan iritzia zen gailendu zen generoa (Sanchez-Taberner, 1989). *El Correo Español-El Pueblo Vasco* fusioaren 50. urteurreneko egunkari berezian, Antonio Guerrero kazetariak — egunkariko zuzendaria izan zen 1990 eta 1993 urteen bitartean— *El Pueblo Vasco* egunkariaren sorrerako helburuak aldarrikatu zituen (Sanchez-Taberner, 1989):

- Katolizismo amorratua.
- Alfontso XIII.ean gorpuztutako monarkiaren defentsa.
- Aberriaren batasunaren eta baloreen defentsa.

- Interes baskongadoen defentsa, beti ere espainiar aberriaren interes gorenekin bateragarriak badira.

*El Correo Español*, berriz, 1937ko uztailaren 6an jaio zen, “Periódico de la Falange Española Tradicionalista y de las JONS” abizenarekin. Bitxia dirudien arren, egun berean itzuli zen *El Pueblo Vasco*, urtebete baino gehiago publikatu gabe eman ostean. Eusebio Zuloaga izan zen egunkari honen lehen zuzendaria, eta *Euzkadi* egunkari ohiaren lantegia zenean inprimatzen zuten; izan ere, William Randolph Hearst Amerikako Estatu Batuetako kazeta-enpresari ezagunak ‘Goss’ motako errotatiba modernoa eman zion *Euzkadi* egunkariari. Errotatiba honekin itxura moderno eta txukunagoa lortzen zen, eta horrek *El Correo Español* egunkariari irakurle gehiago lortzen lagundu zion.

Egunkari berri honen lehen azalean Francisco Francoren erretratua jarri zuten, eta FET y de las JONSen bateratze dekretua ere publikatu zuten. Honela aurkeztu zuen Jesus Maria Arozamenak, *El Correo Español*en lehen zuzendariordeak, egunkaria bera:

“Bilboren bulkada espirituala ikusten dugu, Espainia inperialaren eginkizun handira batzeko irrikitan baitago, geroz eta gehiago. Jar diezaiogun eginkizun horri Falange Tradizionalistaren liturgiaren beharrezko zigilua, eta altxatu dezagun herritarren kontzientzietan uste osoaren barne indarra”

Aurkezpen honetan garbi utzi zuen Jesus Maria Arozamenak *El Correo Español*en eginkizuna, baita non egongo zen kokatuta ere. Hasiera batean, *El Correo Español*en zeuden albiste ia guztiak Gerra Zibilari buruzkoak ziren, baina denboraren poderioz kirol informazioa, zinema, kultura eta albisteak agertzen hasi ziren.

Santiago Nadal izan zen *El Correo Español-El Pueblo Vasco*ren lehen zuzendaria, eta Juan de la Cruz izan zen presidentea.

#### · **La Voz de España: diario tradicionalista:**

1936ko irailaren 15ean sortu zuten egunkari hau militante karlista batzuek, baina 1937. urtean FET y de las JONSek hartu zuen bere gaineko kontrola. Hala ere, 1938. urteko Prentsa Legearen ostean, *La Voz de España* Mugimenduaren Prentsaren barruan sartu zen, “Mugimenduko prentsa-katea” bezala ezaguna; estatu osoan zehar egunkari askorekin gertatu zen hau. Izan ere, Francok probintzia guztietan Mugimenduaren egunkari bat nahi zuen, baina hauetako asko ez ziren hain garrantzitsuak izatera iritsi, eta jabetza pribatuko egunkariak garrantzia hartu zuten, nahiz eta erregimenarekin guztiz lerratuta zeuden.

*La Voz de España*ren sortzileek *La Voz de Guipuzcoaren* egitura eta azpiegiturak hartu zituzten; Gerra Zibilaren aurretik Gipuzkoan salmenta gehien zituen hedabidea zen hau (Diaz Noci, 2012). 1938. urteko Bateratze Dekretuaren aurretik, sortzaileek zuten erreketen tradizionalisten ideologia mantendu zuen egunkariak, baina dekretuaren ostean “Diario de FET y de las JONS” azpiztitulua izatera pasa zen.

Julio Muñoz Aguilar izan zen *La Voz de España* egunkariaren lehen zuzendaria. Besteak beste, alderdiaren Gipuzkoako probintzia-burua izan zen, baita Falange Española Tradicionalistaren ikuskatzaile orokorra eta Mugimenduaren Kontseilu Nazionalako kidea ere (Luengo Teixidor, 1990).

Trantsizio demokratikoan, Adolfo Suarezek eta gero Felipe Gonzalezek defizitarioak ziren eta ideologikoki Estatu demokratiko berriarentzat pisu bat ziren hedabideekin amaitu zuten, eta *La Voz de España* horietariko bat izan zen. Hau dela eta, 1980ko otsailaren 17an agur esan zuen egunkari honek, 40 urte baino gehiagoko lanaren ostean.

## 5.4 Egunkarien idazkiak

Idazkiekin hasi aurretik, lehen bistara egunkari bakoitzak duen itxura aipagarria da, baita 1940tik 1970era dagoen aldaketa ere. *El Correo Español*ek, esaterako, 1940an Espainia frankistaren armarrira zuten izenburuaren ondoan, eta armarraren azpian “Diario de Falange Española Tradicionalista y de las J.O.N.S.” jartzen zuten; 1970ean, baina, bi ezaugarri horiek ez zeuden jada. Izan ere, 1945ean *El Correo*ren jabeak Falangetik banandu ziren pixka bat.

*La Voz de España*ren kasuan, baina, ez dago horrenbesteko aldaketarik. Mugimenduaren Prentsa Katearen parte zen hedabide horrek egunkariaren izenaren azpian “Por Dios, por España y por Franco” jartzen zuten, bai 1940an eta baita 1970ean ere.

### • **Hendaiako elkarrizketa:**

1940ko urriaren 23an elkartu ziren Hitler eta Franco, baina ez zen bi herrialdeetako mandatarien arteko bilera bakarra izan. Bi estatuburuaren arteko elkarrizketaz gain, Himmler Alemaniako Poliziaren (SS-Schutzstaffel) buruak egun batzuetako bidaia egin zuen Espainian agintari ezberdinekin elkartzeko (Franco tarteko), eta bi herrialdeetako kanpo harremanetako ministroak (Serrano Suñer eta Von Ribbentrop) ere elkartu egin ziren. Himmlerren bisitak harreman zuzena zuen Hitler eta Francoren arteko elkarrizketarekin, elkarrizketa bera



segurtasunez egingo zela bermatzeko egin baitzuen bidaia. Deigarria da, ondorengo lerroetan ikusiko dugun moduan, bi herrialdeetako mandatarien arteko elkarrizketek garrantzia handia hartu zutela bi egunkarietako goiburuetan, are gehiago jakinda Bigarren Munduko Gerra betean zegoela Europa, baina ia egunero zegoen bilera diplomatikoei buruzko zerbait lehen orrialdean. Hala ere, Hitlerren eta Francoren arteko bilera nahiko sekretupean eraman zuten hedabideek eta aurreko egunetan ez zuten ezer publikatu, segurtasun kontuak direla eta. Hasi aurretik, aipatzekoa da lehen ohikoa zela egunkariak astean sei egunetan publikatzea, igandea jaieguna baitzen eta astelehenean ez zelako egunkaririk argitaratzen normalean. Hori dela eta, egun bateko saltoak daude tarteka, eta igandean jazotakoak astearteko egunkarietan argitaratu ohi zituzten.

*1940/10/17:*

Egun horretan iragarri zen Himmlerrek noiz bisitatuko zuen Espainia, Alemaniaren eta Espainiaren arteko elkarrizketen lehenengoa izango zena. El Correo Españolek lehen orrian argitaratu zuen, baina espazio txiki eta aparte batean, lehen goiburuetatik kanpo: “Himmler llegará el sábado a España”. La Voz de Españak ere ez zion berebiziko garrantzia eman, hirugarren orrian argitaratu baitzuen beste albiste txiki batzuekin batera: “Himmler llegará el sábado”.

*1940/10/18:*

Alemaniaren eta Espainiaren arteko elkarrizketek goiburu nagusiak hartu gabe jarraitzen zuten, baina elkarrizketa horietan garrantzia izango zuen beste zerbaitek hartu zuen garrantzia. Izan ere, Kanpo Harremanetako Ministerioaren buruan aldaketa egon zen, Serrano Suñer izendatu baitzuten ministro; handik egun gutxira, Von Ribbentropekin elkartuko zen, Alemania kargu berdina zuena. La Voz de España izan zen Alemaniako delegazioaren bidaiari eman berri zuen bakarra, labur, lehen orrian: “El viaje de Himmler: El jefe de la Policía alemana, Himmler, llegará a Burgos en uno de los próximos días procedente de San Sebastián y en viaje hacia Madrid”.

*1940/10/19:*

Egun horretako La Voz de Españaren erregistrorik ez dago, nahiz eta publikatu egin zen. El Correoren lehen lerroa Serrano Suñerren kargu hartzeak hartu zuen. Deigarriak dira Kanpo Harremanetako ministro berriak egin zituen adierazpenak, eta prentsan nola argitaratu ziren. Hala esan zuen Serrano Suñerrek: “Pretendo acompañar la vida de esta vieja casa al mejor

espíritu de la Falange”. Bestalde, Himmlerren bisita garrantzia hartzen hasi zen. Lehen orrian publikatu zuen, erdiko zutabearen, goi goian: “Himmler llegará hoy a San Sebastián”.

*1940/10/20:*

Himmler Espainiara iritsi zen aurreko egunean, eta egunkari bietan lehen lerroan agertu zen albiste hori. “Ayer, a las nueve y cinco, entró en España Himmler” titulatu zuen El Correok, eta La Voz de Españak, berriz, “Himmler ha llegado a España”. Deigarria da bi hedabideek Himmlerri buruz egin zuten deskribapena.

El Correok azalean biografia labur bat eskaini zion Alemaniako SSen buruari. Hor bertan, hala deskribatu zuten Himmler: “Excelentes dotes de organización, espíritu tenaz y consciencia de la responsabilidad son los rasgos que caracterizan la vida de este fiel colaborador de Hitler”.

La Voz de España lehen orrian hasi ziren Himmlerren bisita instituzionalaren kronikarekin, eta hirugarren orrian jarraitu zuten horri buruz idazten. Bidaia osoa xehetasun handiekin idatzi zuten egunkari bietan, kazetariak Himmlerren prentsa gabinetearen arduradunak balira bezala. Hurrengo egunetako egunkarietan ere jarrera hori ikusiko da. Kazetariak Himmlerren bidaia hasieratik amaierara jarraitu zuten, eta uneoro non egon zen informatu zuten: non esnatu, non bazkaldu, zer bisitatu... Egun horretan, urriaren 20an, hirugarren orrialdeko kronika horrela goiburutu zuen La Voz de Españak: “El viaje del ministro alemán Sr. Himmler”.

*1940/10/22:*

Bi egun lehenago, igandean, Himmler Francorekin elkartu zen, eta garrantzia handia eman zieten bi egunkariak. El Correok bigarren albiste nagusi publikatu zuen, “El Caudillo recibe al jefe de la Policía alemana” titularrarekin. Hemen ere egun osoaren kronika egin zuten, eta azpimarragarria da Jose Antonio Primo de Riverari egin zioten omenaldia: “Himmler deposita una corona ante la tumba de Jose Antonio” zioen egunkariak. Garrantzia berezia eman zion omenaldi horri El Correok, Primo de Rivera izan baitzen Falange Español alderdiaren sortzaileetako bat, eta El Correo Falange Española Tradicionalista y de las J.O.N.S.-ek sortu zuen hedabidea zen, Francoren bandoak Bilbo hartu eta hamazazpi egunera sortua.

La Voz de Españak ere azalean argitaratu zuen Himmler eta Francoren arteko bilera argazki batekin, “Himmler se entrevistó el domingo con el Caudillo”.

*1940/10/23:*

Hitler eta Francoren arteko bileraren eguneko edizioan, aurreko eguneko Hitlerren eta Pierre Lavalen (Vichy-ren erregimen kolaborazionistan goi karguak izan zituen Lavalek, eta horrexegatik naziek Bigarren Munduko Gerra galdu ostean epaitua eta exekutatua izan zen) arteko bilerak hartu zuen nagusitasuna El Correoren lehen orriak. Egunkariaren albiste nagusia izan zen, orrialdearen zabalera guztia hartu zuen titular batekin. La Voz de Españak ere lehen orrialdeko albiste nagusienetako gisa publikatu zuen, baina bi egunkarietako batek ere ez zuen gauza handirik jarri, eta EFE albiste agentziak bidalitako bi esaldiak publikatzera mugatu ziren.

Biek esan zuten bakarra izan zen Hitler Pierre Lavalekin elkartu zela Frantzian, eta bilerara Von Ribbentrop joan zela, besterik ez. Egun horretan Lavalek bilera bat lotu zuen Hitler eta Petain mariskalaren artean, hortik bi egunera egin zena (urriaren 24ean). Bestalde, Lavalek zin egin zion Hitlerri lurraldea Erresuma Batuaren erasoan aurrean defendatuko zuela, Winston Churchilli gerra deklaratu gabe.

Espainiaren eta Alemaniaren arteko bilera diplomatikoei buruz ezer gutxi argitaratu zuten egun horretan, soilik Himmlerrek Prado Museoari egin zion bisita. Hala ere, hedabide biek xehetasun handiko kronika bana argitaratu zuten Himmlerren bidaiari buruz.

*1940/10/24:*

Hitlerren eta Francoren arteko bileraren hurrengo egunean lehen lerroak indartsu hartu zituen bilerak. El Correon titular nagusia izan zen, eta hizki gorriez publikatu zuten. La Voz de Españak ere albiste nagusia egin zuen horrekin, eta zabalera osoa hartu zuen titularrak, letra handiz. Bi egunkariak garai horretan bi mandatariekiko errespetua adierazten zuten ezizenekin edo karguekin egin zieten erreferentzia Francori eta Hitlerri. Hala titulatu zuen El Correok: “El CAUDILLO y el FUHRER se entrevistan en la frontera hispano-francesa”. La Voz de España, berriz, horrela: “El Generalísimo y el Führer se entrevistaron ayer”.

El Correok EFE agentziaren kronika publikatu zuen. Xehetasun handiz eman zituen elkarrizketaren aspektu formalak, baina elkarrizketaren edukiari buruzko erreferentziarik ez zuen publikatu. Berdin egin zuen La Voz de Españak, Cifraren kronika publikatu baitzuen

(EFEren mendeko agentzia zen Cifra). Bi egunkariak adierazi zuten bileraren eguneko arratsaldeko 19:00etan jaso zutela bi agintarien arteko elkarrizketari buruzko prentsa oharra, baina ez zuten informazio gehiago eman. La Voz de Españak hala zioen: “A las siete de la tarde fué dado a publicidad, redactado en los idiomas español y alemán, el comunicado de la entrevista que figura en otro lugar de esta página”, baina egun horretako egunkarian ez zuten ezer gehiago argitaratu elkarrizketaren edukiari buruz.

*1940/10/25:*

Egun honetan ezberdintasun handia dago bi egunkarien artean. Izan ere, El Correok Hendaiaiko elkarrizketaren edukiari buruz eta izan zitzakeen inplikazioei buruz hitz egin zuen, eta La Voz de Españak, berriz, ez zuen horri buruzko ezer argitaratu.

El Correok lau zutabeko zabalerako titularra eskaini zion lehen orrian, letra gorritz: “La entrevista del CAUDILLO y el FHURER, “valiosa aportación para el triunfo del nuevo orden en Europa””. Ondoren, Italiako eta Alemaniako prentsak egindako balorazioak bildu zituen. Ardatzeko Potentzien bi herrialde nagusietako hedabideek publikatutakoa jaso zuen El Correok. Bertan idatzi zutenaren arabera, Italiako prentsak (*Giornale d'Italia*) adierazi zuen bilera baliogarria izan zela Europan ezartzen ari zen ordena berriaren (nazismoa eta faxismoa) egonkortzeko. Alemaniako prentsaren erreakzioak ere jaso zituen El Correok, eta nabarmentzekoa da nola definitu zituen Espainiaren eta Ardatzeko Potentzien arteko harremana, baita herrialde horien izaera bera ere: “(...) y se juzga muy natural en los círculos políticos que la España de Franco esté en relación con las fuerzas evolutivas de Europa, dirigidas por las potencias del Eje”. Espainia Bigarren Munduko Gerran sartzeari buruzko balorazioa ere egin zuten: “Se juzga, por último, que España deriva de su propia lucha por la libertad el derecho a participar en la evolución general de Europa, y tampoco se puede olvidar que España resulta afectada por el nuevo orden que se esta creando en Europa y en el Mediterráneo”.

4.2 atalean azaldu moduan, Afrikaren zatiketa kolonialak garrantzia handia zuen Francorentzat gerran sartzeko ala ez, eta El Correok jaso zuen moduan, Alemaniako egunkariak horri erreferentzia egin zioten: “El “National Zeitung”, de Essen, escribe que la reorganización del orden político en Africa interesa directamente a España, una de las más antiguas potencias coloniales de Europa.

Esan bezela, La Voz de Españak ez zion erreferentziarik egin egun honetan Hitlerren eta Francoren arteko bilerak utzi zuenari, eta eguneko albiste nagusia Hitlerren eta Petain mariskalaren arteko bilera izan zen.

· **Burgosko Prozesua:**

*1970/12/02:*

Aurreko egunean, 1970eko abenduaren lehenean, ETAk Alemaniako Errepublika Federaleko Donostiako kontsula bahitu zuen, epaiketa hasi baino bi egun lehenago. Azken orduko albisteak izan zen; beraz, hedabide biek nahiko labur eman zuten albisteak, xehetasun handietan sartu gabe. Hala eman zuen El Correok, lehen orrialdeko beheko ezker aldeko lekua emanda: “DESAPARICION DEL CONSUL DE ALEMANIA EN SAN SEBASTIAN. \* SE TEME QUE HAYA SIDO SECUESTRADO”. Ondoren, bigarren orrian, informazio pixka bat gehiago eman zuen: “Según las investigaciones realizadas, parece ser que una sirvienta de la casa del cónsul vio, sobre las diez y media de la noche, llegar al señor Beihl en su coche y penetrar en el garaje. Pocos minutos después advirtió que el automovil volvía a salir, según parece conducido por el propio cónsul, pero acompañado de varias personas. El coche se alejó de la residencia, seguido inmediatamente por otro vehículo de color rojo que estaba aparcado en las inmediaciones”.

La Voz de Españak ere lehen orrialdean eman zion lekua albisteari, El Correok egin moduan, beheko ezker aldeko lekua emanda. Desagerketari baino, bahitua izan zitekeen aukerari garrantzia handiagoa eman zion, El Correorekin alderatuta: “¿Ha sido secuestrado el cónsul alemán en San Sebastián? Anoche desapareció en su domicilio”.

Bi hedabideek desagerpenaren berri eman zuten, baina ikuspuntu ezberdin batekin. El Correok gertakaria lehenetsi zuen, desagerpena, eta ondoren bahitua izan zitekeenaren hipotesia mahaigaineratu zuen. La Voz de Españak alderantziz egin zuen: bahitua izan zitekeen galdera egin zuen lehenbizi, eta ondoren adierazi zuen aurreko egunean desagertu egin zela.

Kontsularen bahiketaz gain, El Correok ez zuen Burgosko Prozesuari buruzko ezer gehiago argitaratu; bai, ordea, La Voz de Españak. Izan ere, egun bakarra falta zen epaiketa hasteko. Baina, ez zen albiste bat, ezta prebia bat ere: egoerari buruzko analisi partzial bat zen, iritzi bat, inolako sinadurarik gabe. Bertan, prozesatuen aurkako iritziak zabaldu zituzten gehienbat. Ondorengoak adibide batzuk dira: “El mal más grave que amenaza a toda

comunidad civil es, siempre, la violencia sistemática ejercida por quienes, al amparo de supuestas ideologías, no tienen el menor reparo en apelar a métodos terroristas. El terrorismo es antisocial y disolvente, torpe y negador de cualquier valor noble y elevado”, “Mucho nos costó a todos ganar la paz social y mucho costó, asimismo, elaborar las bases de un orden civil propio de nuestra época”, “Y sabemos, también, que los brotes de terrorismo no sólo atentan contra la seguridad del Estado, sino, fundamentalmente, contra todos y cada uno de los miembros de la sociedad. Contra todos y cada uno de los ciudadanos. Por eso es preciso defender la paz civil y el orden social cueste lo que cueste. Porque sólo manteniendo ambos podemos avanzar, con seguridad y firmeza, hacia el futuro”. Hala ere, Francorekiko eta erregimenarekiko lerrokatzeaz gain, garaiko prentsa, mugimenduarena batez ere, beste ezaugarri batek bereizten zuen: kristau moralak. Hala, heriotza zigor eskaera zutenenganako gutxieneko kezka formal bat adierazi zuten, baina ordena lehenesten jarraitzen zuten hala ere. Aurreko testu bereko adibide batzuk dira ondorengoak: “Es evidente, desde luego, que nada de lo dicho está reñido con la “caridad cristiana”. Pero no es menos cierto que la “caridad cristiana” es un concepto que no debemos adulterar, que debemos entender de forma amplia. La caridad cristiana tiene que ser para todo un pueblo, para todos los miembros de una comunidad entera, y, naturalmente, también, para los agentes de la autoridad legal que están al servicio del orden social de esa comunidad y no sólo -como a veces paradójicamente se alega por algunos- para los delincuentes y los terroristas”; “La caridad a de amparar a los hombres entregados a la defensa de los demás, y ha de aplicarse, asimismo, a todos los que trabajan en su profesión con derecho a que se respete su trabajo, y su tranquilidad, y su libertad, y su paz”; “No podemos ser ajenos, y no lo somos, a la humana preocupación de los familiares de los encartados. Comprendemos su afán en la defensa, dentro de los cauces que señalan las leyes de nuestra comunidad social. Y cuando hablamos de la exigencia de la ley, de la aplicación de la justicia, es porque entendemos que este es el camino recto para mantener la convivencia fraterna”; “Estamos ante un futuro en el que todo nos resultará posible si sabemos defender lo que constituye la esencia de toda comunidad civil: la paz y el orden social. Dentro de ellos podremos llegar a cualquier horizonte de justicia, de libertad, de solidaridad entre todos”; “Todo lo que se produce de forma anárquica, subversiva, terrorista, lejos de facilitar los avances los congela, los paraliza, los hace imposibles. La sociedad española, apoyada en sus leyes, en su autoridad, en sus tribunales de Justicia, debe defenderse de quienes la atacan”. “Sin escasear, por supuesto, en el entendimiento de la caridad cristiana, que no se opone ni con mucho a la justicia; pero entendiendo esa caridad como una luz que se

proyecta, por igual, sobre todos los hombres”; “Pedimos al Señor que a todos ha de juzgarnos que ilumine a los jueces de Burgos para que la justicia resplandezca”.

*1970/12/03:*

Egun honetan berebiziko garrantzia hartu zuen Alemaniako kontsularen bahiketak, El Correion batez ere. Egunkari horretan ia azal osoa hartu zuen albisteak: “EL COCHE DEL CONSUL ALEMAN EN SAN SEBASTIAN, LOCALIZADO \* Indignación en toda Europa por el secuestro”. La Voz de Españaren azalean ez zuen horrenbesteko garrantzia hartu. Goikaldean jarri zuten pistarik ez zegoela bahitutako kontsulari buruz, eta albistea 8. eta 9. orrialdeetan kontatuko zutela, baina garrantzitsuena azalaren beheko ezker aldean jarri zuten, Gipuzkoako Gobernu Zibilaren nota: “NO SE TOLERARA NINGUNA MANIFESTACION NO AUTORIZADA. Nota de advertencia del Gobierno Civil de Guipúzcoa”. Izan ere, bi egun beranduago, abenduaren 4ean, Gipuzkoako Gobernu Zibilak salbuespen egoera deklaratu zuen, baina askatasun zibil eta politikoen murriztea lehenago etorri zen, baimenik gabeko manifestazioak debekatu baitzituzten bi egun lehenago. Bi hedabideek informatu zuten Gobernu Zibilaren oharraz.

Nazioartean hainbat manifestazio eta liskar izan ziren Burgosko Prozesuaren egunetan, prozesatuen aldekoak. La Voz de Españak Parisko manifestazioak jaso zituen, tendentzia oso markatu batekin: “Desde el punto de vista interno lo que preocupa seriamente es la serie de reacciones en cadena que, en forma de manifestaciones de toda especie, se han comenzado a producir en el país [Frantziari buruz]. Este tipo de manifestaciones en favor de los separatistas vascos, adquirió anoche un carácter deplorable cuando, una marcha que sus organizadores estimaron en diez mil personas y que la policía no cifra en más de dos mil, después de dislocarse, llevó al centro de París una acción terrorista del peor estilo”. Erabilitako adjektiboek eta tonuak garbi uzten dute egunkariaren iritzia prozesatuekiko ekintza eta manifestazio horiekiko.

El Correok lau orrialde eskaini zizkion barrualdean bahiketari eta Burgosko Prozesuari buruz. Lehenean bahiketaren desglose bat egin zuten kronika formatuan, iturriekin hitz eginda. Bigarrenean Burgosko Prozesua egun horretan (1970eko abenduaren 3an) hasiko zela iragarri zuten; albiste nagusia horrekin izan zen, eta gainerako txikiak beste kontsulei buruz izan ziren. Epaiaketaren albistean, nabarmentzekoa da kazetariak nazioarteko prentsari buruz egiten duen errepasoa; izan ere, kazetariak berak azpimarratzen du kazetari sobietar baten presentzia: “No obstante se han habilitado también lugares preferentes para la prensa

nacional y extranjera, que estará representada por todas las agencias informativas nacionales y 13 extranjeras, entre las cuales figura el corresponsal de la “Tass” soviética, recientemente acreditado en España. Es decir, al proceso no le van a faltar luces y taquígrafos”. Prozesuari berari buruz, azken orduko berritasunak eman zituen ere El Correok, hala nola, aurreko egunean (abenduarien 2an) akusatuen defentsek egin zuten prentsaurrekoa. Donostiako auzitegiak egindako autoaren aurka jarritako helegitea tramitera pasatzea onartu zuen Auzitegi Gorenak, eta hori dela eta, gerra kontseiluaren atzerapena eskatu zuten defentsek, baina azkenean ez zen atzeratu.

Hirugarren orrialdean, El Correok ETAREN OHARRARI BURUZ IDATZI ZUEN: “Los terroristas vascos se hacen responsables del secuestro”. Nabarmentzekoa da orrialde horretan El Correok egiten duen nazioarteko prentsaren errebasoa. Le Monde Frantziako egunkariak idatzitakoa errebasatzen dute, eta Francoren erregimenari egindako kritika plazaratzen dute: ““LE MONDE” ENJUICIA: En su columna editorial, el diario “Le Monde” abre sus informaciones con un artículo sobre el proceso de Burgos. Dice que “el Régimen general de Franco ha tomado como norma la de endurecer su actitud cada vez que se encuentra ante una oposición violenta”. Manifiesta el vespertino citado, que el Gobierno español ha reservado sus golpes más severos durante los dos últimos años a los separatistas de la ETA, quienes por su parte han multiplicado los atentados con bombas y los ataques a bancos”. Azkenik, laugarren orrialdean azken orduko parebat albiste eman zituen: bahitutako kontsularen alabaren adierazpenak eta Gipuzkoako Gobernu Zibilaren oharra, manifestazioak debekatuz.

Beraz, egun horretan bi egunkariak argitaratu zutenaren arteko ezberdintasuna nabarmena izan zen: La Voz de Españak informazio gutxiago publikatu zuen, gehienbat iturri ofizialetatik zetorren informazioa: Gobernu Zibilaren oharra, ETAK bahiketaren ardura bereganatu izana eta beste gauza gutxi batzuk. Horrez gain, oso kritiko azaldu zituen prozesatuen aldeko mobilizazioak beste herrialdeetan.

El Correok, bere aldetik, informazio gehiago eman zuen gaiari buruz, gehiago jorratu zuen bahiketa, eta informazioaren trataera ezberdina egin zuen, erregimenarekin ez hain lerrokatua.

*1970/12/04:*

Bi egunkariak zabandu zuten egun horretako edizioa Burgosko Prozesuarekin, batez ere, aurreko egunean hasi zelako epaiketa. El Correok hainbat titular atera zituen egun horretako



azalean, baina azpimarragarria da horietako biren arteko ezberdintasuna. Hala zioen bata: “Comienza el Juicio de Burgos con fuertes medidas de seguridad”. Itxuraz, nahiko informatibo eta ez-partziala. Bestea, baina, oso ezberdina zen: “Patético llamamiento del Obispo de San Sebastián a los secuestradores”. Lehenik eta behin, adjektibo horren erabilerarengatik, eta bestalde, informazioa tratatzeko eragatik.

Egunkariaren barruan, kontsularen bahiketari garrantzia handia ematen jarraitzen zion El Correok, hiru orrialderekin. Gero, bi orrialdetan landu zuten epaiketaren hasiera, titular objektiboekin eta iritzietan sartu gabe. Gainera, defentsaren abokatuek esandakoak ere sartu zituzten.

La Voz de Españak, berriz, azalean ere epaiketaren hasierari buruz informatu zuen (“PRIMERA SESIÓN DEL CONSEJO DE GUERRA: Fueron leídos los cargos contra los acusados”), eta Gipuzkoako Gobernadore Zibilaren oharra ere zabaldu zuten, ordenari dei eginez. Barruan, epaiketaren berri ematen hasi aurretik, iritzi artikulu bat publikatu zuen, Unidad egunkariko kazetari batena, “Chantaje a la justicia” titularrarekin, bahiketari buruz: “ETA tiene, al parecer, un propósito directo y claro: el de tratar de impresionar con ella la independencia y el sentido de la objetividad que preside las actuaciones del tribunal militar reunido en Burgos. Se trata, pues, de una actitud de violencia frente a un procedimiento de justicia”. Hala, epaiketa burutzen ari zen tribunalaren “zuzentasuna eta objektibotasuna” nabarmendu zituen idazleak, eta iradoki zuen bahiketaekin ETA zela epaiketa zikintzen edo zapuzten ari zena. Lehen sesioari buruz informazio asko ere ez zuen eman horren hurrengo orrialdean, baina tarte gehiago eman zien Gipuzkoan epaiketaren aurka egin ziren manifestazioei, eta horiek direla eta Gipuzkoako Gobernadore Zibilak zabalduzako oharrari: “ADVERTENCIA: SE MANTENDRA EL ORDEN A TODA COSTA”.

*1970/12/05:*

Epaiketa dela eta, epaiketak baino Euskal Herrian zegoen giro politikoak hartu zuen garrantzia handiagoa egun horretan, batez ere Gipuzkoan izendatu zen salbuespen egoeragatik. Azalean eman zuen La Voz de Españak, eta hala titulatu zuen egunkari barruan: “ESTADO DE EXCEPCIÓN EN GUIPUZCOA: REGIRA DURANTE TRES MESES”. Orri berean diktadoreari zuzendutako artikulu bat zegoen: “Franco cumplió 78 años: ABC destaca su entrega abnegada al pueblo español”. Epaiketari buruz, bi zutabeko kronika bat publikatu zuten, eta Eibarren izandako liskarrei garrantzia gehiago eman zieten: “En Eibar, la fuerza

pública se vio obligada a disparar”. Hala plazaratzen zuen La Voz de Españak erregimenaren poliziaren jardunari buruzko informazioa, tiro egitera “behartuta” izan zirela adieraziz.

El Correion kontsularen bahiketari garrantzia handiagoa ematen jarraitzen zuten, eta azalean titular handi batekin adierazi zuten bizirik zegoela: “EL CONSUL ESTA VIVO: según comunicaron los secuestradores a la Asociación Anai-Artea”. Salbuespen egoerari buruz ere informatu zuten azalean. Barruan, kontsularen bahiketaren harira bi orri atera zituzten, eta gero, salbuespen egoerari eta epaiketari buruz gehiago idatzi zuten lau orrialdetan.

Epaiketaren aurkako mugimendu asko egon zen kalean Euskal Herrian, eta grebak bata bestearen atzetik etorri ziren. Horiei buruz modu ezberdinean informatu zuten egunkari biek. El Correok gehiago nabarmendu zituen grebak, eta La Voz de Españak, berriz, garrantzia handiagoa ematen zien langileak lanera itzultzen ziren uneei. Hala zioen El Correok: “Guipuzcoa: veinte mil huelguistas”, “Ayer continuaron en paro en Vizcaya unos 16.700 obreros”. Bestalde, hala nabarmendu zuen La Voz de Españak: “Ayer tarde se trabajó en Pasajes”. Bizkaiari buruz, hala zioen: “Paros parciales”, baina gero testu barruan adierazi zuen 14.000 langilek greba egin zutela. Hala, gai berari buruz modu ezberdinean informatu zuten egunkari biek.

*1970/12/06:*

Egun horretan (igandea) El Correok azalera eraman zuen Alemaniako kontsulak bere emazteari gutun bat idatzi izana; epaiketaren jarraipenari buruz aipamen txiki bat egin zion. Ezberdina izan zen, ordea, La Voz de Españaren kasuan, gutun horri aipamen txiki bat egin baitzion, azalaren goikaldean. Bestalde, azalean epaiketari buruz ere aipamen txiki bat egin zuten, eta garrantzia handiena eman zien grebei eta kalean egon ziren arazoei: “En Rentería y Pasajes fueron desalojadas algunas fábricas: El gobernador de Guipúzcoa se reunió con obreros y empresarios”.

Egunkariaren barruan, La Voz de Españak hala zioen grebei buruz: “En Pasajes y Rentería: en relación con el orden público, declaró (Gipuzkoako gobernadoreak) que por la mañana la fuerza había tenido que disolver agrupaciones de gente en Pasajes y Rentería, localidades donde, cumpliendo orden gubernativa, fueron desalojadas algunas fábricas en las que no se trabajaba, porque la autoridad no está dispuesta a consentir la mas leve alteración del orden”. Horiek La Voz de Españaren hitzak dira, garbi uzten dutenak zein zen grebekiko

eta protestekiko posizioa. Garai horretan erregimenari min handiena eragiten zien gauzenetariko bat ziren grebak, horregatik jarri zuten indarrean, hain zuzen ere, salbuespen egoera. Epaiaketaren aurrerapenei buruzko kronika bat ere egin zuten: “EL CONSEJO DE GUERRA TUVO AYER DOS SESIONES, CENTRADAS SOBRE EL ASESINATO DEL SR. MANZANAS: Intervinieron los defensores de siete procesados”.

El Correo ohiko tendentziarekin jarraitzen zuen, kontsularen bahiketari La Voz de Españak baino garrantzia gehiago ematen. Egunkariaren barruan, bi orrialde gai horri eman zizkion. Horren ostean, epaiaketaren berritasunak eman zituen. Kronika batean epaiaketaren nondik norakoak gaika eman zituzten, kronika objektibo batekin, baina horren ostean defentsaren abokatuen taktikari buruzko testu bat publikatu zuten: “TACTICA DILATORIA DE LOS ABOGADOS DEFENSORES”. Testu horretan, defentsaren abokatuek epaiketa geratzeko taktika zutela iradoki zuen El Correok: “La defensa siguió con su táctica de interrupciones, ante la más mínima anomalía. Si el primer día fue la falta de sable en la impedimenta de uno de los miembros del tribunal y la lectura de un periódico por una persona asistente entre el público, ayer fue porque el Santo Cristo no se encontraba colocado exactamente en el lugar que debía, en la mesa presidencial, cosa que se hizo tras la observación de uno de los defensores”.

Grebei buruz, biek informatu zuten Bilboko grebari buruz, 9.000 langilek parte hartu zuten grebari buruz, baina emateko era oso ezberdina izan zen. Hala titulatu zuen La Voz de Españak: “Disminuye el paro”. El Correok, berriz, horrela: “Paro laboral de 9.000 trabajadores en Bilbao”. Eibarren Poliziak zauritutako manifestarien egoerari buruz ere modu ezberdinean hitz egin zuten biek. La Voz de Españak paragrafo txo bat eman zion, eta El Correok orrialde bateko beheko titular bat: “UNO DE LOS HERIDOS EN LAS MANIFESTACIONES DE EIBAR, MUY GRAVE”.

*1970/12/07:*

Egun horretan ez zen egunkaririk atera, astelehena zelako.

*1970/12/08:*

Aurreko egunean, astelehenean, ez zen epaiaketaren saiorik izan, epaimahaikide bat gaixotu zelako; beraz, epaiaketaren xehetasun berri handirik ez zuten eman egunkariek. Hala ere, azalean bertan ezberdintasun handiak ikusi daitezke. Izan ere, La Voz de Españak ez zuen adierazi zergatik ez zen epaiaketaren saiorik egin aurreko egunean, eta El Correok azalaren

zabalera osoa hartzen zuen titular bat atera zuen: “AYER SE SUSPENDIERON LAS SESIONES DEL CONSEJO DE GUERRA POR ENFERMEDAD DEL VOCAL PONENTE”.

Egunkariaren barruan, Alemaniako kontsularen bahiketaren kontuek hartu zuten garrantzia handiagoa, eta epaiketaren emaitzaren inguruko espekulazioek lehen tarte izan zuten, aurreko egunean ez baitzen epaiketaren saiorik izan. Hala zioen El Correok: “Los terroristas presuponen la condena de muerte de Javier Izco”. Artikulu horretan, Frantziako kazetari batek ETaren ustezko bozeramaile batek izandako elkarriketako pasarte batzuk atera zituen El Correok, non esaten zuten Javier Izkok heriotza kondena jasotzen bazuen, Alemaniako kontsularen etorkizuna berdina izango zela. Orrialde berean, epaituetako hamasei pertsonetatik hamalauk sinatu zuten gutun bati buruz ere informatu zuen El Correok, non zioten kontsularen bahiketaren aurka zeudela.

Aurreko egunean egunkaririk egon ez zenez, igandeko saioei buruz ere eman zuten informazioa. Egun horretan epaituei galdeketak egiten hasi ziren, eta horren kronika kronologiko bat egin zuen El Correok. Aipagarria da azpitularra: “Parece que la defensa pretende dar matiz político y no terrorista a las acusaciones”, baita testu barrukoa ere: “En el curso del mismo hubo un momento de tensión entre los defensores y el Tribunal. Aquellos parece que pretendan a toda costa demostrar que se trata de un juicio político. Incluso en muchas de las preguntas que formulan a sus patrocinados parece que se busca que estos puedan exponer la política y objetivos de su organización y puedan, asimismo, atacar al régimen español. El presidente corta estos brotes (...)”. Nabarmentzekoa da, lehenik eta behin, “aquellos” hori, testuari ez baitio ezer gehitzen, baina garbi uzten du posizioa eta haiekiko urruntasuna. Bestalde, beren bezeroei “sus patrocinados” gisa zuzentzea ere adierazgarria da, “a sus clientes” idatzi baitzezaketen.

La Voz de Españak askoz tarte gutxiago eskaini zion gaiari, orrialde bat bakarrik. Bertan igandeko saioaren kronika bat egin zuen, eta kaleko egoeraren errepasso bat ere: “Domingo y lunes, jornadas de calma en Guipúzcoa: En Bilbao se produjeron algunos paros”. Hala ere, aurreko orrialdera jota, titular deigarri bat irakurri daiteke: “SEGUIMOS SIENDO INCOMPATIBLES CON EL MARXISMO: Declaración de los antiguos miembros del Frente de Juventudes de Santander”. Bertan, Santanderreko Falangearen gazte taldearen kide ohiek plazaratutako agiria argitaratu zuen La Voz de Españak, erregimenari babes guztia ematen eta epaituak eta haiei babes ematen zien edonor salatzen. Deigarria da ondorengo esaldia: “Que,

pese a todo, continuamos fieles a la doctrina falangista de José Antonio, que nos fue inculcada en el Frente de Juventudes, de cuya procedencia nos servimos orgullosos”. La Voz de Españak erregimenaren eta Falangearen instrumentua izaten jarraitzen zuen, eta horrelako gauzetan garbi ikusten zen mantentzen zuten lotura hori.

*1970/12/09:*

Abenduaren 9an epaiketari buruzko informazio askorik ez zuen eman La Voz de Españak; orrialde bat. Hala ere, nahikoa izan zitzaion portadara titular handi bat eramateko, goian, gorritz: “LA E.T.A., IDENTIFICADA CON EL MARXISMO-LENINISMO”. Hori azpimarratzea bereziki garrantzitsua zen erregimenarekin zuzen lotuta zegoen egunkari batentzat, Francoren etsai nagusienetako bat komunismoa eta alderdi komunistak eta sozialistak izan baitziren. Horren adibide da 1940ko martxoaren 1eko legea: Masoneriaren eta Komunismoaren Errepresiorako Legea. Egunkariaren barruan, eguneko saioaren errepasso bat egin zuen La Voz de Españak, epaituen galdeketetan zentratuta.

El Correok ere antzekoa egin zuen egun horretan, eta azal ia osoa hartzen zuen titularra eman zion gai berari: “VARIOS DE LOS PROCESADOS SE DECLARAN MARXISTAS-LENINISTAS”. El Correok garrantzia handiagoa eman zion epaiketari egunkari barruan. Alemaniako kontsularen bahiketaren nondik norakoekin jarraitu zuten, horri bi orrialde eskainiz, eta ondoren epaiketaren xehetasun gehiago eman zituzten lau orrialdetan. Nabarmentzekoa da azken orrialdea: izan ere, bertan El Correok behin behineko alferez batzuek egin zituzten adierazpenak jaso zituen, Euskal Herriko egoera politikoa salatzen eta Espainiaren batasunaren aldeko mezua zabaltzen: “Previo amplio estudio y deliberación de los hechos que han venido sucediéndose en diversos sectores de nuestra Patria y últimamente en las provincias Vascongadas, (...) Nos unimos al clamor surgido en toda España de las Hermandades de Alféreces Provisionales, condenando toda acción subversiva y hechos punibles que vayan en contra de la integridad de la Patria. Llamamos la atención a los tibios y a aquéllos que no dan importancia a nada y decan hacer. Que sepan que los Alféreces Provisionales están en permanente alerta”. Mehatxu itxura duen soldadu ohien mezu hori zabaltzea erabaki zuen El Correok; izan ere, aipatu dugun moduan, Mugimenduaren Prentsa katearen parte ez bazen ere, iraganean loturak izan zituen Falangearekin.

*1970/12/10:*

Epaiketaren azken saioaren hurrengo eguna zen hori, eta hala zioten bi egunkariaren azalek: La Voz de España: “Concluye el consejo de guerra en Burgos”; El Correo: “EL CONSEJO DE GUERRA VISTO PARA SENTENCIA: GRAVE INCIDENTE EN LA SESION DE AYER”.

Egunkariaren barruan, epaituek ustez egin zituzten delitu guztien zerrenda atera zuen El Correok, 100 baino gehiago, eta epaiketaren azken egunaren kronika egin zuen. Kronika hori baino, deigarriena da 17. orrialdean ateratako iritzia, “Basta de confusiones” titularrarekin. Bertan, epaiketaren amaieran El Correok garbi utzi nahi izan zuen epaituak marxistak zirela. “Cuando el Consejo de guerra que se ha celebrado en Burgos termina sus tareas en medio de insólitas actuaciones y con un acompañamiento orquestal claramente definido fuera de nuestras fronteras, conviene detenerse sobre algo que los propios acusados han querido manifestar: su filiación marxista - leninista. Las declaraciones de muchos de los procesados han constituido un martilleo constante de ideas nacidas a la sombra del comunismo. (...) Basta ya de confusiones. Hablemos con claridad de lo que era meridiano desde tiempo atrás. No puede hablarse impúnemente de libertad e independencia cuando lo que en última instancia se persigue es romper una unidad histórica y natural para encadenarse a la suprema voluntad del marxismo internacional”. Hala, astebeteko epaiketaren ostean, non gerora hainbat heriotza zigor ezarriko eta ostean kenduko ziren, El Correok garbi utzi nahi izan zuen gauza bakarra epaituen ideologia izan zen, garai horretan delitua zena.

La Voz de Españak azken saioaren kronika bat egin zuen, eta hurrengo orrialdean gaiarekin loturiko hainbat artikulua atera zituen. Deigarria da behin-behineko Alferezen oharra: “Piden al Gobierno que se mantenga inflexible en la aplicación de las leyes: Nota de los alféreces provisionales de las cuatro provincias catalanas”. Oharra osorik publikatu zuen La Voz de Españak, eta bertan zioten epaituak “ongizate komunaren etsaiak” zirela, eta Gobernuari zuzenean eskatu zion legea bere horretan aplikatzeko: “Pide al Gobierno, depositario del bienestar común, se mantenga inflexible en la aplicación de las leyes y sanciones a cuantos intenten perturbar la paz y el progreso del pueblo con procedimientos selváticos, sean cualesquiera las instituciones, corporaciones o personas tras las que se escuden”. Hala, garbi utzi zuten diktadurak zeramatzan 35 urteak bakearen eta aurrerapenaren adierazle zirela, eta epaituak gogor zigortzeko eskatu zuten.

Egunek aurrera jarraitu zuten, eta kasuak buelta asko eman zituen. Lehenik, abenduaren 25ean, Eguberri egunean, ETAk Alemaniako kontsula askatu zuen. Handik egun gutxira, abenduaren 28an, epaiketaren sententziaren berri eman zuten: guztira sei epaituri

bederatzi heriotza zigor ezarri zizkieten. Manifestazioek eta grebek jarraitzen zuten, eta egoera ikusita, Erreinu Kontseilua batu zen abenduaren 29an, eta hurrengo egunean Ministroen Kontseilua bildu zen, eta heriotza zigorrak aldatzea onartu zuten, gradu txikiagoko zigorrenatik. Azkenean, 1977ko Amnistiaren Legeari esker, aske geratu ziren denak, nahiz eta amnistiaren aurretik hilketagatik zigortuak izan ziren bost epaitu Espainiatik kanporatu zituzten.

## 6.Ondorioak

Lanaren 2. atalean aurreikusi moduan, diktadura frankistaren hasieratik amaierara aldaketa bat dago prentsa idatzian. La Voz de España eta El Correo Español-El Pueblo Vasco egunkarien analisisan ikusi da frankismoaren hasieran gobernu berriarekin askoz lotuago zeudela masa hedabideak, legeak berak ere hala arautzen zuelako. Eta erregimenarekiko lerrokatze hori ez da soilik edukian nabari, egunkarien itxuran eta aspektu formaletan ere (egunkarien izenen ondoan zeuden esaldiak horren adibide dira). Hala, urteen poderioz, gauzak aldatzen joan ziren, eta diktadurak abiatu zuen irekiera moderatua egunkarietan ere nabaritzen hasi zen, eta 1966ko prentsa lege berriak eskubide eta askatasun gutxi batzuk eman zituen, nahiz eta zentsura eta bestelako neurri kontrolatzaile batzuek indarrean jarraitu zuten.

Aldaketa hori, baina, erregimenarekin lotura zuzen-zuzenik ez zuten egunkarietan gehiago nabaritu zen. Analisisan Mugimenduko Prentsa Katearen parte zen La Voz de España eta titulartasun pribatukoa zen El Correo aztertu ditugu, eta 1940ko hamarkadatik 1970kora aldaketa handiagoa izan zuen bigarrenak, eta hori etorkizunean ere ikusi zen. Izan ere, El Correok egunkari salduena izaten jarraitu zuen Araban eta Bizkaian, gaur egun arte, baina La Voz de España Gipuzkoako egunkari salduena izatetik desagertenera pasa zen urte gutxian, 1980an itxi baitzituen atea. Aspektu formaletan ikusten zen ezberdintasun hori (70etan jada El Correoren azalean ez zuen jartzen “Diario de Falange Española Tradicionalista y de las J.O.N.S.” jartzen, esaterako, baina La Voz de Españarenean oraindik “Por Dios, por España y por Franco” jartzen zuen), baita edukietan ere. Horren adibide garbia da 1970eko abenduaren 2an La Voz de Españak publikatu zuen editoriala, aurrez 5. atalean azaldu moduan. Hala ere, ikusi dugu El Correok Burgosko Prozesuan erregimenaren posizioaren antzekoa hartu zuela, nahiz eta La Voz de Españak baino neutraltasun eta objektibotasun gehiago erakutsi egun horietako edukietan.

Beraz, esan daiteke aldaketa egon zela eguneroko prentsan frankismoaren hasieratik frankismo berantirera gainontzeko beste eremu batzuetan bezala (ekonomian eta gizartean, esaterako), eta 1940ko prentsarekin alderatuta, garaiko mendebaldeko demokrazia garrantzitsuenen prentsa eredura hurbiltzen hasi zela, nahiz eta oraindik lotura izaten jarraitzen zuen erregimenarekin. Hala, momentu horretako nazioarteko egoerara eta



harremanetara egokitzeko eta etorkizuneko gizarte demokratikoago baterako trantsizioko aldaketa bat izan zen.

## 7. Bibliografía

- ALFEREZ, A. (1986). *Cuarto poder en España: La Prensa desde la Ley Fraga de 1966*. Barcelona. Plaza & Janés.
- ALVAREZ LLANEZA, P. (2019). “Propaganda y manipulación de masas en el siglo XX”. *Boletín IIEE (40 2019)* aldizkarian. Instituto Español de Estudios Estratégicos. 533-545 or.
- APARICIO LOPEZ, J. (1939). *JONS. Antología*. Barcelona. Ediciones Falange Española.
- BARRERA, C. (2002). *Historia del proceso democrático en España. Tardofranquismo, transición y democracia*. Iruña. Fragua.
- ----- (1997) “Poder político, empresa periodística y profesionales de los medios en la transición española”. *Comunicación y sociedad (Vol. 10 N°2 1997)* aldizkarian. Universidad de Navarra.
- CARR, R. (2009). *España: 1808-2008*. Madril. Ariel Historia.
- CHUECA INTXUSTA, J. (2020). “Seis claves para el Proceso de Burgos, diciembre 1970”. *Viento Sur: por una izquierda alternativa (173 2020)* aldizkarian. 105-116 or.
- DIAZ NOCI, J. (2012). *Historia del periodismo vasco (1600-2010)*. Donostia. Eusko Ikaskuntza. Mediatika: cuadernos de medios de comunicación.
- DIAZ NOSTY, B. SUEIRO, D. (1986). *Historia del franquismo (I)*. Madril. SARPE.
- ----- (1986) *Historia del franquismo (II)*. Madril. SARPE.
- FERNANDEZ GARCIA, A. (1985). “La Iglesia española y la Guerra Civil”. *Studia historica. Historia contemporánea (3 1985)* aldizkarian. 37-74 or.
- GIL PECHARROMAN, J. (2017). “Un partido para acabar con los partidos: el fascismo español, 1931-1936”. *Bulletin d’Histoire Contemporaine de l’Espagne: Les forces politiques durant la Seconde République espagnole (51 2017)* aldizkarian. OpenEdition Journals. 78-95 or.
- GIMENEZ MARTINEZ, M.A. (2015). “El corpus ideológico del franquismo: principios originarios y elementos de renovación”. *Revista de Estudios Internacionales de la Universidad de Chile (180 2015)* aldizkarian. Universidad de Chile. 11-45 or.

- HERNANDEZ RAMOS, P. (2015). “Consideracion teórica sobre la prensa como fuente historiográfica”. *Historia y comunicación social* (22(2) 2017) aldizkarian. Universidad Complutense. 465-477 or.
- LUENGO TEIXIDOR, F. (1990). “La formación local del poder franquista en Guipúzcoa (1937-1945)”. *Gerónimo de Uztariz* (4 1990) aldizkarian. Euskal Herriko Unibertsitatea. 83-95 or.
- MARTIN ALARCON, J. (2006). “El desencuentro de Hendaya: El Caudillo se muestra dispuesto a participar en la guerra, pero a cambio exige beneficios económicos y territoriales”, Daniel Arjona, Silvia Fernández (Koor.) Franco-Hitler, diálogo de sordos en Hendaya: 1939-1940, Unidad Editorial. 7-25 or.
- REDONDO RODELAS, J. (2006). ““Franco, Franco, Franco!” el nuevo estado se apoya en tres pilares: la iglesia, el ejército y el partido, bajo la constante supervisión del generalísimo”, Daniel Arjona, Silvia Fernández (Koor.) Franco-Hitler, diálogo de sordos en Hendaya: 1939-1940, Unidad Editorial. 52-71 or.
- RODRIGUEZ LOPEZ, E. (2022). *El efecto clase media: crítica y crisis de la paz social*. Madril. Traficantes de Sueños.
- SALABERRI, K. (1971). *El Proceso de Euskadi en Burgos. El sumarísimo* 31-69. Bartzelona. Ruedo Ibérico.
- SANCHEZ LISSEN, R. eta SANZ DIAZ, M.T. (2013). “El Plan de Estabilización español de 1959: Juan Sardá Dexeus y la economía social de mercado”. *Investigaciones de Historia Económica* (11 2015) aldizkarian. 10-19 or.
- SANCHEZ-TABERNERO, A. (1989). *El Correo Español-El Pueblo Vasco y su entorno informativo (1910-1985)*. Iruña. Nafarroako Unibertsitateko publikazioen zerbitzua.
- TORREALDAI, J.M. (2019). *De la hoguera al lápiz rojo: La Censura franquista en el País Vasco*. Donostia. Txertoa.
- ZARAGOZA ALBERICH, A. (1993). “Aproximación al Proceso de Burgos a partir del Archivo de la Presidencia del Gobierno”. *El régimen de Franco (1936-1975) Política y relaciones exteriores* (1 1993) aldizkarian. UNED. 205-2016 or.

